

ehbildu

■
Eraldaketa
ekosozialerako
euskal bidea

**Ernaitze-
proiektuak**



Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Krisi ekosoziala	8
2.1 Krisi ekologiko globala	8
2.2 Aro fosilistaren amaierarantz	9
3. Euskal Herria krisi ekologiko globalaren testuinguruan	11
3.1 Gainezkatze ekologikoa	11
3.2 Nondik gatozen eta non gauden	11
3.3 Berotegi efektuko gasen emisioak	12
3.4 Biodibertsitatea	12
4. Trantsizio ekosozialerako oinarri eta printzipioak	16
4.1 Hurbilpen politikoa	16
4.2 Oinarrizko printzipioak	18
4.3 Justizia Klimatikoaren printzipioak gidatu behar gaitu	20
4.4 Lurralde plangintzaren garrantzia	21
5. Eraldatu beharreko sektore nagusiak	24
5.1 Industria	24
5.2 Garraioa	27
5.3 Eraikuntza	28
5.4 Elikadura	30
5.5 Turismoa	32
5.6 Basogintza	34
5.7 Ura	35
6. Energia: eraldaketa ekosozialerako giltzarri	38
6.1 Sarrera	38
6.2 Energia sorkuntza	39
6.3 Tramitazioan dauden proiektuak	43
6.4 Sare elektrikoak	44
7. Herri kultura ekosoziala, eraldaketa ekosozialerako giltzarri	46
7.1 Herri kultura alternatiborako abiapuntuak	46
7.2 Mutazio kulturalaren zenbait eduki	47
7.3 Komunitatea, ardatz	48
7.4 Disputa kulturalerako prestatu	48
7.5 Komunikazio eta pedagogia politikoan asmatu	49
7.6 Hezkuntza ekosozial integralaren garrantzia	49
8. Azken hitza	50

1. Sarrera

Orain ia bost urte Eraldatu ala Kolapsatu jardunaldien eskutik hasi zen hausnarketa prozesu luze baten emaitza da dokumentu hau. Denbora horretan, azterketa eta eztabaida lan kolektibo bat garatu da Trantsizio Ekologikoaren Idazkaritzaren baitan, eta unean-unean adituengana ere jo dugu aholku eske. 2022ko azaroan, trantsizio energetikorako estrategia bat ere plazaratu genuen. Edozein kasutan, orain eztabaidagai jartzen dugun dokumentu hau ez da ezeren amaiera, abiapuntu bat baizik. Hain zuzen ere, orain EH Bilduko kide guztiengana zabaltzen den hausnarketa eta eztabaida prozesu baten abiapuntua.

Planetaren muga biofisikoen barruan pertsona guztientzako bizitza onak posible egitea da gure ortzi muga. Horretarako, larrialdiko maniobra bat, eraldaketa azkar bat, egiteko beharra dugu: hori da mende honetan egokitu zaigun zio eta erronka zailena. Eraldaketa horretako gure bide orria, gure ikuspegia, gure proposamena da *Bizigintza: eraldaketa ekosozialerako euskal bidea*.

Bizigintza kontzeptu zabala da, edukiz betetzen joango garena ibiliaren ibiliz, baina bi esanahi nagusi ditu.

Bizi: bizia bere osotasunean edo esanahi zabalean kontuan hartzen badugu konturatuko gara airez, urez, lurrez, mikroorganismo, landare, animaliez etab. osaturik dagoela eta horiek gabe ezin ditugula gure jendarteak sostengatu. Bizitza duinak nahi ditugu, ongizatea izateko oinarritzakoa ziurtatzea, baina sabai ekologikoaren barruan eta beraz bizitzaren trama konplexua zainduduz. Bizitza bera arriskuan dagoela esan dezakegu. *Stockholm Resilience Centre* eginiko ikerketa ezagunen arabera, gizakientzako espazio segurua definitzen duten bederatzi planeta muga ekologikoetatik sei gaingitu ditugu. Iraultza industrialetik hasi eta azken hamarkadetan azeleratuta, kapitalismoak mundua izugarri artifizializatu du bai sozialki eta bai fisikoki. 1900. urtean masa artifizia biomasaren %3 soilik bazen, 2020tik masa artifizialak biomasak baino pisu handiagoa du planetan, seigarren desagerpen masiboaz hitz egiteraino eta klima aldaketaren agertoki okerrenetan gizadia bera kinka larrian jartzeraino. Hortaz, bizitzaren aldeko borroka era berean kapitalismoa gaingidzearen aldekoa da. Ekofeminismoak, era berean, agerian jarri du merkatu-sistemak eta patriarkatuak ikusezin bihurtu dutela ekonomiaren eta bizitzaren sostengurako hain funtsezkoak eta garrantzizkoak diren hainbat prozesu eta lan, eta Bizitza vs. Kapitala formula hedatu da horri erantzunez. Bizitzak erdigunera ekartzea, bizia bere osotasunean zaintzea da. Gure arteko zaintzaz eta gure existentzia-baldintzak eman daitezen zaindu beharreko prozesu eta baliabideak zaintzea, lanean, etxean, inguruan eta kalean bizitza duintzea eta horretarako beharrezkoa dena ekoiztea da. Zentzu politiko horrez gain, zentzu estrategiko batean ere beharrezkoa da bizitza lehen mailara ekartzea, gureak, erresistentziaz gain, ekologismo eraikitzailea izan nahi baitu, gure jarduera sozialak hautsitako orekak berregingo duena, bai planetarekiko, bai gure bizi-leku den Euskal Herriarekiko, harreman osasuntsua eraikiz. Horretarako baikara utopikoak.

-gintza: gure kultura politikoaren beste ezaugarri nabarmenetako bat da eraldaketari buruz dugun ikuspegi estrategiko bezain pragmatikoa. Izan ere, krisi ekosozialaren zergatien analisisiaz bibliografia eskerga handia dago eta balizko soluzio edo alternatiben inguruan ere asko idatzi da. Baina, nola eraman hori praktikara? Hori da askatzea lortu behar den korapiloa. Proposamen dogmatikoetatik aldenduz, gure estrategia politikoaren funtsetako bat izan da eraldaketa positiboak bultzatzea ahal den tokian, ahal den neurrian, ahal den guztian, eraldaketarako garai azeleratuei aterik itxi gabe baina haien zain geratu

gabe. Hortaz, boterearen disputa ez da egun loriatsu bat izango, baizik eta kontra hegemoniaren eguneroko eraikuntza. Naziogintza, Estatugintza edo Herrigintza dira ezker soberanistak borroka horretarako garatu dituen tresnetako batzuk. Ekologismoa ulertzeko gure modua ere hori izango da: boterearen eta eraldaketen metaketa etengabea, baldintzak eraikitzea haustura momentuetan bizkorrago aurrera egiteko prest izateko. Bizigintza estrategia aktibo hori da, “nire erreinua ez da mundu honetakoa” esan beharrean, ardura hartu eta egunero eraikitzea mundu hobe hori, kalez-kale, ekintzaz-ekintza, legez-legez, udalez-udal, gero eta bizkorrago, poliedroak hareazko erloju baten forma hartu baitu. Horretarako baikara errealistak.

Euskal Herriak badauka tradizio eraldatzaile oparo bat eta horretarako bide orri propioak eta trantsizio prozesu emankorrak garatu ditugu iraganean; euskararen berreskurapena, kooperatibismoaren zabal-kundea, edo berrindustrializazio prozesua horren adibideak dira. Guzti hauek eraldaketa politiko, ekonomiko, sozial eta kultural garrantzitsuak eragin zituzten gure herrian. Beraz, esan dezakegu iraganean jakin izan genuela gure herriak duen inteligentzia kolektiboa, gure ehun komunitarioa eta instituzio publikoen potentziala eraldaketa ezberdinen zerbitzura jartzen. Krisi ekosoziala parez pare izanik, beste behin ere gure onena ematera behartuta gauda.

Jakitun gara dena ez dagoela gure esku. Euskal Herria ez da estatu bat eta ez ditugu estatu batek horrelako egoera bati aurre egiteko dituen baliabideak. Gure nazio ukatu izaera elementu baldintzatzailea izango da. Bestalde, eraldaketa ekosozialak eskatzen dituen sakoneko aldaketa asko ezin daitezke soilik euskal eskalan gauzatu. Kasu batzuetan European hartzen diren erabakiek baldintzatuta egongo gara eta beste kasu batzuetan aldaketa globalagoak beharko dira, munduko herrialdeen arteko harremanen izaerari eta harreman horiek baldintzatzen dituen eredu sozio-ekonomikoari dagozkionak, esaterako. Horregatik, gure herriaren eraldaketa ekosozialerako estrategia batera hurbiltzeko moduko zerbait diseinatzea lan ikaragarri konplexua eta kontraesanez beterikoa da. Nolanahi ere, gure esku ez dauden faktoreak asko direla ondo jakin arren, aurrerako bidea dakigunarekin eta gure esku dagoenarekin egin beharrean gauda, euskal eskalan eraginez, jakinik aurrean dugun krisi ekosoziala ez dela soilik euskal eskalan egiten dugunarekin soluzio bidean jarriko. Baina, era berean, gure eskalan egiten dugunak beste leku batzuetan eragina izango duela kontziente izanik, mundu globalizatuaren ideiatik haratago, ekosistema interkonektatuetan bizi baikara.

Bestalde, munduaren bilakaera politiko, ekonomiko eta kulturala inoiz baino azkarrago eta modu konplexuagoan ematen ari denaren seinale ugari ditugu. Ziurgabetasun handiak ditugu gure aurrean. Ezin jakin geopolitikari, ekonomiari edo osasunari lotutako krisi global berriek noiz, nondik eta nola eragingo diguten. Testuinguru konplexu horretan gure jendartea babesteko, gure gaitasun guztiak, izan politikoak, sozialak edo ekonomikoak, erresilientzia areagotzeko bidean jartzeko premia dugu. Eraldaketa ekosoziala ez da gaur aurreikusi ditzakegun krisiei aurre egiteko estrategia bat soilik, etorriko zaizkigun egoera berrietara egokitu eta aurre egiteko baldintzak sortzeko estrategia ere izan beharko luke. Horixe da dokumentu honen espiritua: krisi ekosozialaren testuinguruan sortuko diren eszenatoki ziurgabe eta konplexuetan noranzko egokian aurrera egiten jarraitzeko gida baliagarria izatea.

Aldi berean, konturatu behar gara eraldaketa ekosoziala arrakastaz gauzatzeko, gure balioak eta horiekin bat datozen bizierak birpentsatzea ere beharrezkoa izango dela, eta gure jarduera sozio-produktiboaren alderdi guztiak barne hartzen dituela. Aldaketa asko behar dira eraldaketa ekosoziala posible izan dadin eta, guzti horiek, sarri gaur normaltzat hartzen ditugun bizimoduetan eraginak izango dituzte. Besteak beste, kontsumo, ekoizpen, aisialdi edo mugikortasun ereduak sakonki berrikustea dakartelako. Noski,

eraldaketa ez da egun batetik bestera emango den gertaera bat. Hori lortzeko norabidea markatuko duen bideorri edo trantsizio prozesu argi bat behar da, non trantsizioaren ideia (adib. energia trantsizioa) egitura sozioekonomiko eta instituzionalen eraldaketarako baldintzak ezartzearekin lotzen den.

Hurrengo orrietan aurkeztuko duguna ez da proposamen programatiko bat, zerbait funtsezkoagoa bai- zik: gure ustez eraldaketa ekosozialak izan behar dituen gidalerro politiko nagusiak dira; oinarri ideolo- giko bat eta orientazio politiko batzuk, horien gainean, eraldaketa ekosoziala gauzatzeko sektore ezber- dinak zein norabidetan, zein denbora markoetan eta, beraz, NORUNTZ eta NOLA eraldatu behar diren zehazteko; ondoren, proposamen programatiko, akordio, lege, estrategia eta politika publikoen bitartez, euskal jendartea eraldaketa ekosozialaren bidean jartzeko.

2. Krisi ekosoziala

2.1 Krisi ekologiko globala

Klima larrialdiaz haratago, planetako hainbat prozesu ekologiko gakoek muga gainditu da eta gehiegieria horren ondorioak pairatzen ari gara dagoeneko. Ez da kontu berria. Planetaren gainezkatze ekologikoa hamarkada batzuk lehenago hasi zen, eta gaur bizi dugun larrialdi egoera, urte guzti hauetan egin dugun eta egin ez dugunaren ondorioa ere bada. Azken hamarkadetan krisi ekologiko globalari aurre egiteko aplikatu diren azaleko erreformak ez dira nahikoak izan egoerari buelta emateko. Paradigma berri bat behar dugu, eraldaketan oinarritua, naturarekin eta inguruarekin orekan egongo dena, eta bizitza duina eta bizigarria helburu izango duena.

Nazioarteko hainbat ekimenek, zientziaren kontsentsuarekin bat eginik, analisi zehatzak egin dituzte eskuragarri dagoen ebidentziaren gainean. 2009an jada, planetaren muga ekologikoak identifikatu zituen zientzialari taldeak ohartarazi zuen planetarako funtsezkoak diren alderdi ekologiko batzuk gainezkatuta zeudela, hala nola biodibertsitatearen galera, klima aldaketa eta nitrogenoaren zikloa. Harrez geroztik, adierazle horiek nabarmen okertu dira. Izan ere, 2023an egindako berrikuspenean, dagoeneko bederatzitik sei muga planetario gainditu direla ondorioztatzen da, hala nola, klima aldaketa, biosferaren osotasuna, nitrogeno eta fosforoaren fluxu biogeokimikoak, lurraren erabilera, ingurumen kutsatzaileak eta ur geza.

Nazio Batuen barruan, Dibertsitate Biologikoaren eta Ekosistemetako Zerbitzuen gaineko Gobernuarteko Plataformak (IPBES, ingelesezko sigletan) 2018ko txostenean biodibertsitatearen egoera dramatikoaren eta ingurune naturalak ematen dizkigun zerbitzu ekosistemikoen hondatze arriskuaren berri eman zuen. Bestalde, Klima Aldaketaren gaineko Gobernuarteko Panelak (IPCC), ziurrenik historiako itunpeko aha-lerin zientifiko nagusia denak, klima-egoera xehetasunez azaltzen digu aldian-aldian ematen dituen ebaluazio txostenetan.

2021ean IPBES eta IPCC erakundeek artean lehenbizikoz egindako elkarlanak modu argian jaso zituen klima eta biodibertsitatearen artean dauden loturak eta ondorioztatu zuen biei elkarrekin egin behar zaiela aurre, horretarako tokian tokiko eta sektore guztietan eraldaketa sakonak eginez. 2022an IPBESek naturaren balio anitzak egitura politiko eta instituzionaletan txertatzea beharrezkoa zela aipatu zuen, eta 2024ko bukaeran kaleratutako Eraldaketari buruzko txostenean berriz, argi aipatu du iraunkortasuna erdiesteko eraldaketa sistemikoa beharrezkoa izango dela.

Bestalde, IPCC erakundearen seigarren eta azken txostenak (AR6) 2021ean hiru gai nagusi berretsi zituen:

1. Giza jarduerak klima-aldaketaren faktore nagusi gisa duen erantzukizuna eztaba daezina dela.
2. Klima-aldaketa dagoeneko gizateriarengan eragiten ari dela, planetako eskualde guztietako muturreko klima gertakariekin agerian jartzen dutenez.
3. Hurrengo urteetan Berotegi Eftuko Gasen emisioak izugarri murriztu ezean, Parisko Akordioaren klima-helburuak bete gabe geratuko direla; eta beraz, segurtasuneko atalase mailak nabarmen gaindituko direla, gizateriarentzako efektuak suntsitzaileak izango direlarik. Izan ere, 2024. urtea izan da Parisko Akordioan ezarritako segurtasuneko 1,5 °C-ko beroketa globalaren langa lehen aldiz gainditu duen urtea.

Berriki, Nazio Batuetako Ingurumen Programaren urteko txostenak (Emission Gap Report 2024) ohar-tarazi digunez, emisioen murrizketak daraman bidearen eta benetan behar den murrizketaren arteko aldeak egoera latz batean kokatzen gaitu. Segurtasun muga guztiak gaindituta, orain artean bezala jarraituz gero, litekeena da tenperatura globala 3 °C baino nabarmen gehiago igotzea. Honek zera esan nahi du, 1,5 °C-ko beroketarekin pairatuko liratekeen inpaktuak laukoiztuko liratekela. Beste era batera esanda, ibilbide horrek hondamendizko eraginak izango lituzke mundu osoan zehar. Haien hitzetan, estatuek anbizio handiagoko neurri eta politikak mahai gaineratu behar dituzte, edo Parisko Akordioaren 1,5 °C-ko helburua urte gutxiren buruan desagertuko da. 2035erako mundu mailako CO2 isuriak %57an murriztu behar dira helburu hori mantendu ahal izateko.

Lurraren berotzea eta biodibertsitaren galera gelditzeko eskala handiko eraldaketa azkarra eta sistemikoa behar da. Egiten den guztia garrantzitsua da komunitate kalteberentzat, espezieentzat, ekosistementzat eta pertsona bakoitzarentzat. Datozen urteak erabakigarriak izango dira. Aukera leihoa gero eta txikiagoa da gure metabolismo sozioekonomikoa planetako muga biofisikoen barruan txertatzeko.

Afera hau oraingo eta etorkizuneko belaunaldien ongizaterako funtsezkoa dela aintzat hartuta, Euskal ezker subiranistak bere erantzukizuna hartu behar du. Jakina da gizarte sektore guztiek ez daukatela erantzukizun maila berdina, ez eta krisi ekologikora egokitze ahalmen berdina ere. Era berean, ikus-pegia internazionalista batetik ere, Hego Globalak ez dauka Ipar Globalaren ardura maila berdina, ez dira berdin jasaten ari krisi honen ondorioak, eta injustizia globala nabarmenki areagotu daiteke etorkizunearan. Planetako alde pribilegiatuan bizi gara, eta klima justizia nozio sendo batek gidatu behar gaitu. Hortaz, bada garaia erronka ekologikoa gure ekintza politikoaren erdigunean jartzeko.

2.2 Aro fosilistaren amaierarantz

Egun bizi dugun krisi ekologikoaren oinarrian, hazkunde ekonomikoaren zerbitzura ustiatu diren erregai fosilak daude. Duela mende eta erdi bat gizakiok erregai fosilak modu masiboan erabiltzen hasi ginenez geroztik (lehenik ikatz minerala, gero petrolioa, eta azkenik, gas fosila), erregai fosil horiek egun ezagutzen ditugun jendarteak garatu ahal izateko baldintza bihurtu ziren. Baliabide horiek kantitate handitan edukitzeko aukeraren, energia dentsitate itzelaren, askotariko erabileren, energia itzulerako tasa handien edo garraiatzeko eta biltegitatzeko erraztasunen eraginez, erregai fosilak benetako energia erraldoi bihurtu ziren, eta horrek posible egin zuen mota guztietako baliabide naturalak inoiz lehenago ez bezala ustiatzea edo elikagaien ekoizpena industrializatzea, adibide batzuk jartzearen. Eta guzti horri esker izan da posible munduko ekonomiak eta populazioak bizi izan duen hazkunde esponentziala, eraiki ditugu egun bizi gareneko industria gizarte aurreratuak, eta sortu dugu egun bizi dugun krisi ekologikoa. Horregatik, eraldaketa ekosozialerako estrategiaren baitan energia matrize horren sakoneko eraldaketa giltzarria izango da.

Gaur egun, erregai fosilak dira nagusi munduko energia-sisteman, energia kontsumo osoaren % 80 inguru baitira. Kontuan hartzen badugu CO2 isuriaren % 80 inguru erregai fosilen erauzketatik, garraiotik, finketatik eta, batez ere, erretzetik datozela, erraz ondorioztatuko dugu, klima larrialdia aurre egiteko borrokari helderakoan, lehenik eta behin, haien kontsumoaren murrizketa azkar eta zorrotz bati heldu beharko zaiola, azkenerako erregai fosilak gure energia matrize desagerrarazteraino.

Ez hori bakarrik, ezin dezakegu beste albo batera begiratu erregai fosilen erauzketatik hasi eta erre arte sortzen diren ingurumen-inpaktuak, desberdintasun sozialak, eskubide urraketak, komunitate ezberdi-

nen kolonizazio eta desplazamendu behartuak eta abar.

Horiek ez dira, ordea, energia sistema eta metabolismo sozial hipokarboniko (oso emisio gutxiko) baterantzko energia trantsizioa behar-beharrezko egiten duen arrazoi bakarrak. Berotze globalaren eragile nagusia izateaz gainera, erregai fosilak mugatuak ere badira, giza eskalan berritu ezinezkoak, eta horregatik ere premiazkoa da berriztagarrien erabileran oinarritutako energia matrize baterantzko trantsizioa azkartzea. Izan ere, merkatu edo eremu geografiko zehatzetan unean-unean nabari daitezkeen tirabira geopolitikoetatik haratago, funtsezko beste mugimendu bat nabarmentzen ari da azkenaldian: gero eta zailagoa da erregai fosilak bilatzea eta erauztea eta, beraz, gero eta gehiago kostatzen da, ekonomia eta energia terminoetan, erregai horietan oinarritutako garapen ereduari eustea.

Edonola ere, erregai fosilak albo batera uzteak gure metabolismo sozio-ekonomiko osoa birpentsatzera behartuko gaitu, begi bistakoa delako energia matrize berriztagarri baten gainean elikatutako jendarte batek ezin izango duela energia erabiltzen jarraitu azken hamarkadetan erregai fosilek ahalbidetu diguten neurrian. Horren gaineko literatura zientifikoan, berriztagarriek eskuragarri ipini dezaketen energia kopuruaren inguruko eztabaidan alde nabarmenak ikusten badira ere, zuhurtzia printzipioa aplikatuz, arriskutsua izan daiteke egungo kontsumoaren erdia baino gehiago proiektatzea etorkizun berriztagarri-rako. Horren arabera, ehuneko ehunean energia berriztagarriekin funtzionatuko duen sistema sozioekonomikoa egungoa baino energia kontsumo gutxiagokoa izango da ezinbestean, eta ezingo du betiereko hazkunde ekonomikoa bultzatu.

3. Euskal Herria krisi ekologiko globalaren testuinguruan

3.1 Gainezkatze ekologikoa

Euskal Herriak ezin dio ihes egin azaldu berri dugun muga biofisikoen gainezkatze egoerari. Areago, mendebalde industrial aurreratuko edo, nahiago bada, Ipar Globaleko parte garen neurrian, gure erantzukizuna handiagoa da munduko herrialdeen batezbestekoa baino. Material eta energia kontsumo oso handiak ditugu, CO₂ isuri handiak eragiten dituztenak eta, horren arabera, gure gizartea gainezkatze ekologikoko egoeran dago, gure lurraldearen, biosferako orekaren, zaugarrien diren munduko biztanleriaren eta hurrengo belaunaldien kalterako ere. Dokumentu honen xedea ez da Euskal Herriko egoera ekologikoari buruzko analisi zehatz bat egitea baina, nolana ere, gure azterna ekologikoaren gaineko azterlanek defizit eta zor ekologikoko egoera bat uzten dute agerian. Datu bakar bat ematearren, gure energia eta materialen kontsumoa mundu mailara hedatuko balitz, bi planeta eta erdi baino gehiago beharko lirateke eta, noski, bakarra dago. Beraz, zor bat dugu Hego Globalarekin, kontsumoen disparekotasuna tarteko, eta zor bat belaunaldi artean ere, planetaren birsortze gaitasunaren gainetik kontsumitzerakoan hurrengo belaunaldien etorkizuna baldintzatzen ari garelako. Gure jendartearen barneko kontsumoak zehatzago aztertuz gero, agerian geratzen dira klase edo generoko arrakalak ere. Beraz, gure jendarte eta ekonomia ereduak eragindako ingurumen injustiziak, bertan, kanpoan eta hurrengo belaunaldietan eragiten dute, eta horri aurre egitea gure erantzukizuna da mugimendu ezkertiar gisa, saihestezina den erantzukizuna baita.

3.2 Nondik gatozen eta non gauden

Euskal Herria herri txikia da, eta populazio-dentsitate handikoa. Guztira, 3.193.513 biztanle bizi gara 20.950,3 km²-tan (Gaindegia, 2020ko datuak); horrek 152,5 bizt/km² egiten ditu, Europar Batasunean soilik 6 herri egonik gure gainetik: Malta, Herbehereak, Belgika, Luxenburgo, Alemania eta Italia. Populazio dentsitatearen banaketa oso desorekatua da: Bizkaian 523 bizt/km², Gipuzkoan 381, Lapurdin 307, Araban 101, Nafarroa Garaian 64, Nafarroa Beherean 24 eta Zuberoan 18. Gainera, kontutan izan behar da herrialde populatuena direla aldi berean orografia korapilatsuenaren dutenak.

Ondorioz, haran-hondoetan bildu dira populazioa eta azpiegitura gehienak, hala nola urbanizazio, industrialde, eta garraiobide nagusiak; eta bertatik, altitude ertain eta garaietaraino iritsi dira antropizazioaren eraginak. Aitzitik, lurralde lau eta zabalagoak dituzten herrialdeetan ere, hamarkadatan sustatutako nekazaritza ereduak, ongarri eta pestizida kimikoetan oinarritutako eredu intentsiboak, ingurune naturalaren degradazioan duten eragina nabarmena izaten ari da.

Urbanizazio eta industrializazioaren eraginak Erdi Arotik aurrera nagusitu dira Euskal Herrian. Ontziolak, burdinolak, karobiak eta etxegintza hornitzeko beharrak egur-eskari handia ekarri zuen, lehenik gure basoetatik hornitu zena, eta ondoren Errioxa, Gaztela eta Aragoiko mendietatik. XVIII eta XIX. mendetan zehar, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan garatutako industrializazioak, eta harekin lo-

tutako burdinaren, ikatzaren eta elikagaien eskariaren igoerak, meategien irekieraz gain, ia erabateko deforestazioa ekarri zuen Bizkaia eta Gipuzkoara, bai eta Arabako isurialde atlantiarreko eremuetara ere. Horrekin batera, gure ibaiek gero eta kutsadura maila handiagoak jasan zituzten, eremu hauei lotutako ekosistemak nabarmen kaltetuz. Guzti horrek, ondorengo mendeetan eman zen azpiegitura ezberdinen garapenak eragindako antropizazio gehigarriarekin eta nekazaritza nahiz basogintza eredu intentsiboen hedapenarekin batera, gure lurraldeko ekosistema naturalen gainbehera orokortua eragin zuen. XX. mendeko azken zatian eta, batez ere, XXI. mendean zehar, ingurugiroa babesteko arau eta lege ezberdinak onartzen joan dira, eta, horrek, ekosistema batzuen berreskurapena ekarri du, ibaiek bizi izan duten hobekuntza kasu.

Bestalde, azken mendeetan erdietsi dugun garapen sozio-ekonomikoak energiaren eta lehengaien kontsumoaren hazkunde esponentzial bat behar izan du, gero eta gehiago kanpotik etorritako baliabide fosil eta lehengaiarekin estali izan dena. Horrek, lurraldearen eta garapen sozio-ekonomikoaren arteko lotura hautsi du eta garapen horrek sortzen dituen ingurumen inpaktuen zati esanguratsu bat beste lurralde batzuetara leku aldatzea ekarri du. Izan ere, azken mendeetan gure lurraldeak bizi izan duen kalte ekologikoa handia izan den arren, kontutan hartu behar dira gure garapen sozio-ekonomikoaren ondorioz zuzenean beste lurralde batzuetan eta zeharka “ondasun komunetan” (atmosfera kasu) eragin ditugun inpaktuak. Arestian aipatu bezala, gure erantzukizuna handiagoa da munduko herrialdeen batezbestekoa baino egun munduak bizi duen muga biofisikoen gainezkatze ekologikoan eta horrek sortu duen krisi ekosozialean.

3.3 Berotegi efektuko gasen emisioak

Hego Euskal Herrian, Berotegi Efektuko Gasen emisioak 23.500.000 tona CO₂-baliokide dira urtean (2022). Hori horrela, emisioak asko murriztu behar ditugu deskarbonizazio helburuekin lerrokatzeko. Era berean, biztanleko isuriek munduan kokatzen gaituzte: Hego Euskal Herrian, biztanleko CO₂ isuriak 8,13 tona/urte dira, Europar Batasunaren batezbestekoaren gainetik (7,8) eta munduko batezbestekoaren % 75 gainetik (4,7).

Horrek klima-anbizioz jardutera behartzen gaitu, isuriak murrizteko politikak nabarmen azkartuz. Izan ere, azken hiru hamarkadetan isurien murrizketa urria izan da, eta murrizketa horren aldagai nagusiak krisi ekonomikoak, ekoizpen zentroen zati baten leku aldatzea (isuriak esternalizatuz) eta kanpotik etorri den elektrizitate berriztagarriaren kontsumoa izan dira (kanpo energia menpekotasuna areagotuz). Gure isurien murrizketa erritmoa, bataz beste, urtean % 0,2 ingurukoa izan da, eta Pariseko akordioari lotutako helburu klimatikoak erdiesteko datozen hamarkadetan isurien murrizketak, bataz beste, %7tik gorakoak izan beharko dute urte oro.

Emisioak	Munduan	Euskal Herrian	Aldea
Emisioak biztanle bakoitzeko	4,66 ton/perts/urtean	8,16 ton/perts/urtean	+% 75

3.4 Biodibertsitatea

Azken 40 urteotan, eta bereziki Europako Batasunaren testuinguruan, hainbat tresna eraiki dira EAEn, Nafarroa Garaian eta Iparraldean ditugun baliabide naturalak erregulatu eta babesteko. Horren ondorioz,

hainbat babes figura sortu dira gure Lurralde Ordenamenduan, hala nola Parke Naturalak, Natura 2000 sarea osatzen duten Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE), Biosferaren Erreserbak, Natur Erreserbak, Paisaia Naturalak, Natur Monumentuak, eta kategoria zerrenda luze bat. Itsasoan ere sei espazio babestu ditugu, guztira 1911,5 km² hartzen dituztenak.

Tamalez, ordea, Euskal Herriko administrazioetan ez da naturaren egoera eta bere bilakaera zuzenduko dituen estrategiarik landu edota horren jarraipenik egingo duen prozesu edo azpiegiturarik antolatu, eta, ondorioz, babestutako ingurune hauen eraginkortasuna ez da neurtu ere egiten. Hala ere, bistakoa da espazio babestu hauetan ezarritako eginbehar eta araudiak ez direla betetzen ari.

Horren eraginez, ondorengoak biodibertsitatearen egoerari buruz ditugun datu esanguratsu batzuk:

- Egoera txarrean dauden intereseko habitatak EHan 68 dira (guztien erdiak), hauetatik 18 basoetakoak.
- Ofizialki mehatxatuta dauden espezieak 257 dira eta hauetako 112 galtzeko arriskuan daude eta %5era ez dira iristen berreskuratzen planen bat daukatenak.
- Natura 2000 Sarea osatzen duten eremuen kudeaketa ezerezen ondokoa da eta atzera egiten ari da nabarmen. Basoak, ibaiak, hezeguneak, larreak, sastrakak, espezie taldeak,..., kudeatzeko planak onartuta egon arren ez dira betetzen ari.
- Azpiegitura berdea ez da gauzatzen. Bi estatu mailan zerbait ari badira ere, gertuagoko administrazioetan ez da behar bezala bilakatzen.
- Espezie inbaditzaileen eragina gero eta nabarmenagoa da alde guztietan, lehorrean zein uretan. Hauen artean kalte ekonomikoak eragiten dituztenak (liztor asiarra, zebra muskuilua,...) bakarrik hartzen dira kontuan.

Nazioarteko erreferentzia-dokumentu guztiek adierazten dute biodibertsitatea kontserbatzeko estrategiak eta ekintza-planak egin behar direla, biodibertsitatea galtzeko beharrezkoak diren ekintzak orientatzeko, planifikatzeko eta programatzeko; besteak beste, Nazio Batuen Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena (1992), 2011-2020 Plan Estrategikoko Aichi Helburuak eta Biodibertsitateari buruzko Europako Batasuneko Estrategia (2030).

Europar Batasunaren 2030erako biodibertsitateari buruzko Estrategiak honako helburu orokorrak ditu, besteak beste:

- Gutxienez, lurrazalaren % 30-ari babes juridikoa emateko konpromisoa, barruko urak barne, eta Batasunaren itsas azaleraren % 30-ari. Horietatik heren batek gutxienez babes zorrotza izan behar du, Batasunean geratzen diren baso primario eta heldu guztiak barne.
- Behar diren neurriak hartzea babestutako espezieen eta habitaten joeretan eta kontserbazio-egoeran inolako narriadurarik gerta ez dadin eta gaur egun egoera egokia ez duten espezie eta habitaten % 30-ek gutxienez egoera horretara iritsi daitezen edo 2030era arte egoera horretarako joera irmoa izan dezaten.
- Eremu babestu guztiak eraginkortasunez kudeatzea, kontserbazio-helburu eta neurri argiekin, eta behar bezala monitorizatzea.

Estrategia honetan eman den azken pausoa Europako Parlamentuak eta Kontseiluak iaz onartu zuten 2024/1991 (EB) Erregelamendua da, natura lehengoratzeari buruzkoa. Bere helburu nagusiak dira:

- Egoera ona lortu arte, egoera onean ez dauden intereseko habitat-moten eremuak hobetzeko beharrezkoak diren lehengoratzeko neurriak hartzea, proportzio hauetan:
 - a. Hemendik 2030era, gutxienez habitat mota guztien azaleraren % 30ean;
 - b. Hemendik 2040ra, gutxienez % 60an, eta hemendik 2050era, gutxienez % 90ean.
- Itsasoko, lehorreko, kostaldeko eta ur gezako espezieen habitatak lehengoratzeko neurriak ezarri, baita konektibitatea hobetzeko ere, habitat horien kalitate eta kantitate nahikoa lortu arte.

Euskal Herriak, munduko beste herrialde eta eskualde batzuek bezala, biodibertsitatea galtzen du, eta, gaur arte, ez du berezko gidoi espezifikorik izan natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko helburua lortzeko, bere errealitatera egokituta eta lehentasunak identifikatzen dituzten helburu estrategikoekin. Askok dira natura-ondareari eta biodibertsitateari eragiten dieten politika publikoak, aldeko edo kontrako zentzuan, ekintza bideratuko duen erreferentzia argi eta unibokorik izan ez dutenak.

Alde horretatik, natura kontserbatzeko politika espezifikoetarako ez ezik, beste politika sektorial batzuetarako ere erreferentzia izan behar du aipatu den Europar Estrategiak, biodibertsitatea hobeto integratzen lagun baitezakete. Estrategia erreferentziazko dokumentu inspiratzailea ere izan behar da eragile publiko eta pribatu guztientzat, gizarte osoak natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzearen alde batera egin dezan sustatzeko.

Natura-ondarea zaintzeak biodibertsitatearen galerari aurre egiten dio, eta klima-aldaketa egokitzen eta arintzen laguntzen du: beharrezkoa da espazioak babestea, espezieak berreskuratzea, ekosistemak leheneratzea, gune gizatiartuak kudeatzea eta giza jarduera batzuei lotutako biodibertsitate galera geldiaraztea.

Natura-ondarearen kontserbazioarekin bateragarria den lurralde- eta ekonomia-eredu bat ezartzeak ekosistemen zerbitzuen hornikuntza bermatzen du, ezinbestekoak baitira gizartearen osasunerako eta ongizaterako: beharrezkoa da azpiegitura berdea lurralde-plangintzan sartzea, habitaten zatiketa gainditzea eta konektagarritasun ekologikoa kontserbatzea eta leheneratzea.

Eta natura-ondareak, ekoizpen-balioez harago, balio historiko, kultural, sozial eta espiritualak ditu, eta horiek hertsiki lotzen dituzte pertsonak. Naturarekiko lotura emozionala ezagutzeak eta gizartearen kontserbazioan inplikatzeko biodibertsitatearen galera gelditzeko eta ingurunearen kontserbazio-egoera hobetzeko erronkaren eragile protagonista eta erantzunkide bihurtzen du: beharrezkoa da gizartearen eragile aktibo eta konprometitu bihurtzea.

Bestalde, babes figurarik ez duen lurraldearen zati handi bat ongardi eta pestizida kimikoen erabilera masiboa oinarri duen nekazaritzara eta, kanpo espezieen ustiaketa intentsiboan oinarritutako basogintzara bideratu da (zuhaitz exotikoen landaketek 250.000 ha hartzen dituzte). Hauek dira, lurraldearen artifizializazio handiarekin batera, Euskal Herrian biodibertsitatearen galeran eragin handiena izan duten faktore nagusiak. Nekazaritza intentsiboaren inpaktuak isurialde mediterranearean gertatu dira nagusiki, eta basogintzari lotutakoak, aldiz, isurialde kantauriarrean. Institutuzio nagusietatik bestelako eredu iraunkoragoetara jotzeko politika eraginkorrik ez da bideratu eta epe-motzeko merkatu logikaren esku garatu dira eredu hauek. Bestalde, datozen hamarkadetan klima aldaketa izango da biodibertsitatearen

galeraren faktore nagusienetakoa, zeina beste faktoreen eraginaren biderkatzailea izango den.

Aipatu bezala, basogintza oso eredu intentsibo eta ez jasangarriaz garatu da, bertakoak ez diren espezieen monokultiboan, eta arraseko mozketan oinarritua. Oso urrun Europan, basogintza aktibitate ekonomiko garrantzitsua izanik, jasangarritasuna eta ingurumenaren kontserbazioa kontutan hartuta burutzen duten herrietatik. Adibidez, Austria, Suitza, Eslovenia, edo Italia iparraldeko Dolomitetan erabiltzen duten ereduetatik. Izan ere, Hego Euskal Herriko isurialde atlantiarrean nagusitu den basogintza ereduak mendien erabateko industrializazio forestala ekarri du, naturaren eta biodibertsitatearen kontserbazioarekin zerikusirik ez duena.

Ondorioz, isurialde atlantiarreko baso kudeaketak ez ditu bertako basoak errekuperatu, ez gutxieneko osasunik izango lukeen baso ekosistemarik sortu ere; aitzitik, lurzoruen higadura eta txirotzea ekarri ditu, eta horrekin batera monokultiboarekin batera datozen izurrien hedapena eta horiek tratatzeko pestiziden erabileraren nagusitzea, azken hamarkadotan ikusi den bezala. Horren erakusle, nazioartean baso ekosistemen osotasun indizea neurtu denean (Grantham et al. 2020, *Nature Communications*), Hegoaldeko isurialde atlantikoko basoek mailarik baxuena eman dute (Gaindegian eskura, 2019ko datuak). Datu horiekin bat eginez, EAEn indarrean dauden Mehatxatutako Espezieen Katalogoetan “galtzorian” sailkatuta dauden ugaztun espezie gehienak hostogalkorren basoetako espezialistak dira. Izan ere, gaurko egunean, isurialde atlantiarrean behintzat, bertako basogintza ereduak izan bide da —hondakin urbano eta industrialekin batera—, lehorreko ekosistemetan dugun ingurumen arazorik larriena.

Monokultiboek badute beste arrisku nabarmen bat, klima aldaketarekin lotura zuzena duena, hain zuzen ere. Ekosistemak, zenbat eta dibertsitate txikiagoa izan (monokultiboetan oinarritutako landaketak kasu), zaurgarriagoak bihurtzen dira klima aldaketak dakartzan inpaktuen aurrean, beraien erresilientzia ekologikoa gutxitzen baita. Banda marroiarekin duela gutxi gertatu bezala, hezetasun eta tenperaturaren konbinazio aldaketa horrek, hazkuntza azkarreko espezieetan oinarritutako baso hedadura handien gainbehera eragin dezake. Klima aldaketarekin zaurgarritasun hau handituko da eta horrek basogintza sektorea egokitzera behartzen du. Egokitze estrategia hori argiki espezieen dibertsitatea handitzean oinarritu behar da, horrela, baso ekosistemen erresilientzia handitu ahal izateko.

Zentzu horretan, kontserbazio egoera onean aurkitzen diren baso hostogalkor zaharrak/iraunkorrek gotorleku garrantzitsuak dira biodibertsitatearen zein klima aldaketaren egokitzapenaren ikuspegik. Eremu hauen kontserbazio zein hedapena eta beraien arteko konektibitatea mantendu eta hobetzea, lehenasunezko irizpideak izan beharko dira etorkizunera begira.

4. Trantsizio ekosozialerako oinarri eta printzipioak

4.1 Hurbilpen politikoa

Orain arte azaldutakoaren arabera argi dago, larrialdi ekologiko-klimatikoaren testuinguru historikoan, Euskal Herria zaurgarritasun handiko egoera batean aurkitzen dela. Alde batetik, kanpotik datozen baliabide natural eta energetikoen oso menpeko gara eta erabaki eta neurri ezberdinak hartzeko eskumen asko falta zaizkigu, baina, bestetik, Hego Globaleko herrialdeekin alderatuta, baldintza ekonomiko eta sozial hobeak ditugu abiatu beharreko eraldaketa ezberdinei aurre egin ahal izateko. Krisi ekosoziala egundoko arazoa da, eta erronka handi baten modura ulertu behar dugu ezinbestean, eraldaketa sakon baterako aukera bihurtzeko.

Azaldu dugun bezala, erregai fosilek elikatu duten hazkunde material eta energetiko esponentziala dago egungo krisi ekosozialaren oinarrian, baina, era berean, horri esker eraiki dugu egun ditugun bizi eta lan baldintzak izatea ahalbidetzen digun egitura sozio-produktiboa.

Testuinguru horretan, krisi ekosozialak dilema baten aurrean jartzen gaitu: planetaren muga biofisikoak gainditu gabe eta munduko herrialde guztiei ongizate maila nahikoa izateko eskubidea bermatuz, gurea bezalako egitura sozio-produktibo konplexua mantendu daiteke energia berriztagarriek duten potentzialarekin?

Eskuragarri dagoen literatura zientifikoari erreparatuta, gaur gaurkoz dilema honek ez du erantzun borobilik. Edozein kasutan, posible izateko, metabolismo sozio-produktibo konplexu horretan eta berau sostengatzen duen eredu ekonomikoan eraldaketa sakonak egin beharko lirateke:

1. Ipar Globaleko herrialdeek ekonomiaren esfera materiala (energia eta baliabide naturalen kontsumoa) murriztu behar dugu, planetaren muga biofisikoen barruan kokatu arte. Komunitate zientifikoa gero eta kontsentsu zabalagoarekin adierazten ari den bezala, helburu hori ez da egingarria izango betiereko hazkunde ekonomikoarekin jarraitzen dugun bitartean.
2. Printzipio gidari bezala, ekoizpen zentroak kontsumo puntuetara ahalik eta gehien gerturatu behar dira, hornidura kateak ahalik eta motzenak izateko helburuarekin. Tokikotze honen eskala geografikoa ezberdina izango da sektore ekonomiko edo produktiboaren arabera, eta ez du autarkia esan nahi, fluxu ekonomiko globalekin konektatua egoten jarraituko du, autosufizientzia konektatuaren ideiarri jarraiki.
3. Matrize energetiko fosila, berriztagarria izango den matrize energetiko batengatik ordezkatzearekin batera, lehengai ez berriztagarriak berreskuratzea eta hondakinak minimizatzea bideratutako ekonomia eredu zirkular bat ezarri behar dugu.
4. Ipar eta Hego Globaleko herrialdeen arteko harreman politiko eta ekonomikoen oinarri kolonial injustua gainditu beharra dago, nazioarteko erakunde ezberdinak demokratizatu eta Hego Globaleko herrialdeetan bizi den jendartearen ongizatea posible egingo duen mundu ordena berri bat ezarri.

Eraldaketa horiek guztiek ekoizteko, kontsumitzeko eta bizitzeko beste modu batzuetara eraman behar gaituzte eta, horretarako, balio sistemaren aldaketa sakon bat behar da: mundu ikuskera berri bat eta munduan egoteko beste modu bat. Naturaren explotazio eta dominazioa oinarri duen mundu ikuskera batetik bizidun guztiak interkonektatu gaudela eta gure osasuna ekosistema naturalen osasunari erabat lotua dagoela ulertzen duen mundu ikuskera batera itzuli behar gara. Horrek, ezinbestean, hazkunde osteko ortzi muga post-kapitalistara eraman behar gaitu, logika neoliberala gainditzearekin hasi eta kapitalismoaren oinarri nuklearrak zalantzan jartzeraino. Prozesu sozial bat, egungo *statu quotik* abiatuta, bidezko antolamendu sozial berri baterantz aurrera egitea ahalbidetuko duena, planetaren muga biofisikoetara egokituz eta baliabide naturalen neurrigabeko esplotazioari galga jarritz, horretarako ezinbestekoa izanik betiereko hazkunde ekonomikoaren paradigma gainditzea.

Ezin dugu alde batera utzi, ordea, egun mundu mailan indar garrantzitsuak ari direla metatzen hain justu ere kontrako norabidean: negazionismoa oinarri hartuta, erregai fosilen ustiaketarekin jarraitzea aldarrikatzen duten gobernu eta *lobby* erreakzionarioak; bai Amerikan —Trumpen garaipenarekin—, bai Europan —eskuin muturraren igoera erakusle—, nazioartean oro har, eta baita Euskal Herrian ere.

Testuinguru aldakor eta irristakor honetan, mundu mailan eragin ahalmen txikia izan dezakeen gurea bezalako herri txiki batek estrategia bikoitza jorratu beharko luke: batetik, aztarna ekologiko eta energetiko txikiagoa izango duen gizarte jasangarriago baterantz ahalik eta gehien/azkarren hurbiltzea eta, bestetik, nazioarteko eremuan bide horri ekiten ez bazaio ezinbestean ager daitezkeen baldintza klimatiko, ekologiko eta ekonomiko-sozialei aurre egiteko tresnak garatzea. Eraldaketa ekosoziala eta erresilientzia, biak helburu izango dituen jendarte eredu egikaritzera, alegia.

Eraldaketa ekosozial honek politika jakin batzuk eskatzen ditu, baina badira oztopo edo muga batzuk politika horiek ezartzea zailtzen dutenak eta aintzat hartu behar direnak:

1. Klima larrialdiaren eragile nagusiak diren erregai fosilen nagusitasuna, kontsumismoaren eta etengabeko hazkundearen fikzioaren zerbitzura. Erregai fosilen erabilera geldiaraztea eta industria fosilaren interes korporatiboak klima larrialdia geldiarazteko interes orokorraren mende jartzea da gure garaiko guda nagusietako bat.
2. Enpresa transnazionalen, inbertsio funtsen eta oligarka teknologikoen botere metaketa, kontrol demokratiko orotik ihes egiteko gauza izaki, kapitalismoaren hazkundearen aldeko logikaren bultzatzailea dena.
3. Kapitalaren kontzentrazioa, planetako muga biofisikoen aurkako talka sistemikoaren testuinguruan, gero eta jende gehiagoren ongizatearen eta biodibertsitatearen kaltetan soilik lortuko den kontzentrazioa. Egoera horren eraginez, ingurumen justiziaren nozioak (aberastasunaren birbanaketa erradikalarekin batera) talka egiten du, bete-betean, kapital metaketarekin eta, horrenbestez, betiereko hazkundearen eta botere politiko eta ekonomikoaren kontzentrazioaren logikarekin.
4. Gurea bezalako mendebaldeko gizarteetan nagusitu den antropozentrismo liberala: Mendebaldeko gizarteak nagusitasun neoliberaletako 40 urteren emaitza dira, eta horrek gure balio sistema moldatu du, eta muga ekologikoak nabarmen gainditzen dituzten kontsumo espektatibei lotutako subjektibitateak eta balio sistemak sortu ditu. Balio eraldaketa bat abiarazi behar da, planetaren muga biofisikoen barruan jardungo duen zerumuga postkapitalista baterantzko bidean, eta horixe da, ezbairik gabe, aurrez aurre dugun erronka kultural nagusia.

Kapitalismoa ez da egun batetik bestera gaindituko, eta historia ez da bitan zatituko. Murgilduta gauden krisi sistemiko eta zibilizazio krisi honetan, alternatiba eraldaketa da, globalizazio kapitalistaren oinarri ekonomiko eta ideologikoak zalantzan jarriko dituen, neoliberalismotik hasita. Sistema eraldatzeko, haren osagai diren zatien gainean jardun behar da eta, ildo horretan, osotasun desberdin bat sortu, big bang iraultzailearen amets zaharrari jarraitu beharrean. Kenneth E. Boulding ekonomilari britaniarrak esan zuen bezala, metamorfosi bat egin beharra dago ezin gelditurik hegan goazen bitartean, cowboy ekonomia batetik (esploratu beharra dagoen mundu mugagabearen ideia) astronauta ekonomia baterantz jauzi eginez (non eskura ditugun baliabide natural mugatu eta gero eta urriagoen erabilera arduratsu eta efiziente bat egin behar dugun). Hau da, abiada bizian goaz ontzi xahutzaile batean, eta beste zerbaitetan bihurtu behar dugu; ekologiaren ikuspegitik jasagarria izanik, jendartearen beharrak asetzeko funtzionala izango den zerbait, hegan goazela egin beharraren zailtasun erantsiarekin. Bestela esanda, ezin dezakegu den-dena geldiarazi, eraldaketa modurik onenean nola egin hausnartzeko.

Dokumentu honetan aurkezten diren eraldaketa ekosozialerako EH Bilduren estrategiaren gida lerroak ondorengo 10 printzipioetan ardazten dira.

4.2 Oinarrizko printzipioak

4.2.1 AUZI POLITIKOA DA, AUZI TEKNIKOA BAINO GEHIAGO

Eraldaketa ekosoziala ez da soilik (ez da batez ere) auzi tekniko, baizik eta ezin politiko-sozialagoa. Are, teknologiarekiko fede itsua da gaur gaurkoz gure gizarteek errotiko aldaketetarako duten oztopo nabarmenetako bat. Funtsean, bestelako gizarte bat eraikitzea da kontua, hazkunde etengabearen oinarrituko ez dena, justizian ardaztutakoa (soziala, generokoa, globala, belaunaldi-artekoa eta espezie-artekoa), elkarzaintzan eta burujabetzan oinarrituagoa. Ez dago gizarte atal bat (energia, elikadura, garraioa, industria, zaintza, hezkuntza...) birpentsatu behar ez dena krisi ekosozialaren prismatik. Are, eraldaketa ekosozialak inoiz baino gehiago behartzen gaitu jendarte post-kapitalista baten ertzak irudikatzerara eta berorren aldeko hautua indartzera.

4.2.2 OREKA EKOLOGIKOA LORTU BEHAR DUGU

Lurra planetak dituen baliabide naturalak mugagabeak balira bezala eta hauek modu intentsiboan ustiatzeak planetaren oreka ekologikoan eraginik izango ez balu bezala jardun dugu azken hamarkada luzee-tan. Gure egungo ongizate ereduaren naturatik eratorritako lehengaien kontsumo masiboaren oinarritzen da. Planeta finitu batean bizi gara eta, itxuraz, munduko populazioak goranzko joera izango du gutxienez mende honen bigarren erdira bitarte. Ondorioz, baliabide naturalen eskuragarritasuna mugatuagoa izango da etorkizunean. Justizia globaleko irizpideari jarraituz oreka ekologikoa lortu nahi badugu, gero eta urriagoak diren lehengaiekiko menpekotasuna murriztu eta erregai fosilak albo batera uztearekin batera, gure kontsumoa nabarmen murriztera behartuta gaude, gure egitura sozioproduktiboak eta gure kontsumo ohiturak eraldatuz.

4.2.3 AUTOSUFIZIENTZIA KONEKTATURA JO BEHAR DUGU

Euskal Herriko egungo ongizate eta produkzio ereduaren energia fosilen kontsumoan oinarritzen da eta hornidura kate globalen mendekoa da. Gaur gaurkoz, gure oinarrizko premiak asebetetzea urruneko herrialdeei erostearen mende dago; izan energia, izan elikagaiak edo izan bestelako lehengai zein produktuak. Ondorioz, elikagai nahiz baliabide naturalen eskuragarritasunarekin erlazionatutako gatazka politiko zein merkatu krisien aurrean oso egoera zaurgarrian aurkitzen gara.

Aztarna ekologikoa eta egun dugun kanpo mendekotasuna murrizte aldera, posible den eremu guztietan autosufizientzia maila handitu behar dugu. Autosufizientzia konektatuaren filosofiari jarraiki (ahalik eta behar gehienak ahalik eta gertueneko baliabideekin asetzear datzana), oinarritzko eskalan lortu ezin dezakeguna goragoko eskaletan bilatuz ahalik eta autosufizientzia mailarik handiena lortu behar dugu, gure oinarritzko beharrak (elikadura, ura, energia, ...) ahalik eta eskalarik baxuenean asetzen saiatuz.

Horretarako, oinarritzko behar horiek asetzera bideratutako hurbileko metabolismo berri bat sustatu behar dugu, elikagaien tokiko ekoizpena sustatuko duena, lehengai eta hondakinen erabileran fluxu zirkularrak eraikiko dituen, edo hiri eta lurraldeak birmoldatuko dituen oinarritzko funtzioen arteko loturak birdefinituz (bizilekua, lana, ikasketak eta beste batzuk), besteak beste, mugikortasun motorizatuaren premiak murrizteko.

4.2.4 TRANTSIZIO ENERGETIKO-TEKNOLOGIKOA BEHAR DUGU

Aurrez esan bezala, eraldaketa ekosoziala auzi politikoa da eta trantsizio energetikotik haratago doa. Baina, era berean, ez da eraldaketa ekosozialik emango erregai fosilak oinarri dituen matrize energetikoa eraldatu gabe eta hauei loturiko teknologiak energia berritzagarriari loturiko teknologien artean ordezkatu gabe, energia sorkuntzari eta kontsumoari dagokionez. Eta trantsizio energetikoa posible izan dadin energia berritzagarriak tokian toki probestu behar dira, mota eta eskala guztietako teknologia berritzagarriak lurraldean modu egokian txertatuz, kontsumoa elektrifikatzearekin batera. Auzia ez da mikro eskalatik haratagoko berritzagarriak hedatu behar diren ala ez, baizik eta zein neurritan eta nola egin behar den, hedapen hori ordenatua, orekatua eta justua izan dadin. Bai hemengo nahiz Hego Globaleko jendarteentzat, bai gainontzeko bizidunentzat eta baita etorkizuneko belaunaldientzat ere.

4.2.5 LURRALDE PLANGINTZA DEMOKRATIKO BAT BEHAR DUGU

Lurraren erabileran gakoak diren dimentsio nagusiak (bizitokiak, industria, azpiegiturak, energia, elikadura, ura eta biodibertsitatea) ezin daitezke elkarren aurka jarri, aldi berean ebatzi behar diren ekuaizio berdineko aldagaiak dira. Eta hori lurralde plangintza eredu demokratiko baten markoan soilik egin daiteke. Eraldaketa ekosozialak indarrean dagoen lurralde antolaketa berrikustea eskatzen du, gorengo tresnetatik hasi eta herrietako Hiri Antolamendu Plan Orokorretaraino, eta tokiko komunitateen parte hartzearekin egin behar da.

4.2.6 SEKTORE PUBLIKOAREN ESKU HARTZE SENDO BAT BEHAR DUGU

Neoliberalismoak ezaugarritutako hamarkada luzeen ondoren, elite tekno-ekonomikoek munduko ordenean nahiz estatuengan duten eragin ahalmena jendarteak duena baino handiago izatera iritsi da, demokrazia liberalen kontrol mekanismoetatik ihes egin eta gizarteko sektore askoren ongizatea baldintzatzeraino. Energia trantsizioa ez dadin jendeartearen gehiengo baten bizi eta lan baldintzen prekarizazioaren bizkar egin, benetako eraldaketa ekosozial bat behar da. Horretarako beharrezkoa izango da sektore publikoaren esku hartze sendo bat, besteak beste, elite ekonomikoen gaineko kontrol mekanismoak ezartzeko, birmoldatu beharreko sektoreak birmoldatzeko, oinarritzko eskubideak bermatzera bideratutako politika publikoak bultzatzeko edo kapitalaren metaketa erdigunean jartzen ez duten eredu ekonomiko alternatiboak sustatzeko, gure herrian tradizio handia duen ekonomia soziala kasu.

4.2.7 BURUJABETZA POLITIKOA BEHAR DUGU

Sektore publikoaren esku hartzearen bitartez eraldaketa ekosozialak behar dituen politika publikoak aurrera eramateko burujabetza politikoa behar dugu, hartu beharreko erabakiak hemen hartu ahal izateko, gure herrian dauden indar harremanen arabera, Madril eta Parisetik datorrenaren mende egon beha-

rean. Eskuin muturra hedatzen ari den garai hauetan, euskal eskalan baldintza hobeak izan ditzakegu herri hau eraldaketa ekosozialaren norabidean jarriko duten politika publiko berritzaileak sustatzeko, baina horretarako egun duguna baino erabakimen handiagoa behar dugu.

4.2.8 JENDARTEAREKIN BATERA EGIN BEHAR DUGU

Eraldaketa ekosoziala egungo jendartearekin batera egin behar da, azken hamarkada luzeetan nagusitu den balio sistema neoliberalak sortu dituen subjektibitate eta bizi espektatibak bidea baldintzatuko dutela aintzat hartuta, baina izan beharko lukeenaren eta posible denaren arteko tentsio eraldatzailea mantenduz. Kontziente izanik aldaketa globalak gertatu ezean euskal eskalan soilik ezingo diogula krisi ekosozialari aurre egin.

Joko zelaian ez gara bakarrik egongo: espektro ideologiko oso ezberdinetatik sortuko diren erantzun mugimenduek “soluzio” errazak planteatuko dituzte benetan korapilatsua den arazo baten aurrean, negazionismo klimatiko gutxi-asko esplizituari, “iraultza ala ezer ez” bezalako posizio antzuei edo NIMBY (not in my backyard, nire inguruan ez) fenomenoari erantzuten dioten posizioak kasu.

4.2.9 ERRESILIENTZIA ERAIKI BEHAR DUGU

Esan bezala, guk (soilik) ezin dezakegu mundua aldatu. Potentzia ekonomiko handiek hartuko dituzten erabakien arabera izango da krisi ekosozialaren bilakaera, eta ezin daiteke baztertu krisi ekosozialak oro har eta, bereziki, krisi klimatikoak okerrera egitea. Ondorioz, eraldaketa ekosoziala sustatzeaz gain, ezinbestekoa izango zaigu klima aldaketak ezaugarrituko duen etorkizun konplexu baterako prestatzea, horretarako erresilientzia handiagoa emango diguten estrategia publiko zein komunitarioetan sakonduz, dela krisi egoera ezberdinetarako kontingentzia planak prestatuz, dela herritarren gutxieneko beharrianak (ura, elikagaiak, energia etab.) bermatzeko politika publikoak sustatuz.

4.2.10 ORAIN IZAN BEHAR DA, DENBORA AGORTZEN ARI DA

Krisi ekosoziala atzera ezina izango den fasean sartu da. Egoera larria da, bai jendartearentzat, bai gainontzeko bizidun guztientzat ere. Inor ez dago krisi ekosozialaren ondorioetatik salbu. Eraldaketa ekosoziala ORAIN egin behar da, eta gure belaunaldiak egin behar du. Horretarako bide orriak diseinatu eta martxan jarri behar dira, trantsizio ekosoziala politikaren erdigunera ekarriz, eta eraldaketa ekosoziala erdiesteko baldintza sozial, kultural, ekonomiko eta instituzional egokiak eraikiz.

4.3 Justizia Klimatikoaren printzipioak gidatu behar gaitu

Gainontzeko Ipar Globaleko Herrialdeekin batera gure herri txikiak ere bere ardura du klima larrialdia areagotzen duten Berotegi Efektuko Gasen emisioan. Industrializazioa eta horrekin batera erregai fosilen ustiapen masiboa abiatu zirenetik, AEB-ak eta Europa dira askogatik emisio pilatu handienak dituzten herrialdeak. Eta, beraz, bada gure erantzukizuna klima aldaketari lotutako eginbeharrak eta ondorioak modu ekitatiboan bana daitezen eskatzea, eta horrekiko koherentzia jokatzea. Izan ere, krisi klimatikoaren aurrean egoera ahulenean dauden Hego Globaleko komunitate eta herrialdeak dira, erantzukizun txikiena izanik, klima aldaketaren eragin larrienak pairatzen ari direnak. Ondorioz, Ipar Globaleko herrialdeak gara, Euskal Herria barne, gure emisioak lehendabizi eta ahalik eta azkarren murriztu behar ditugunak.

Ingurumen justizia edo/eta justizia klimatikoaren kontzeptuek, klima aldaketa eta ingurumen erronkei ez ezik, beraien atzean dauden bidegabekeria sozial eta ekonomikoei ere heldu nahi diete, ikuspegi integralago batetik. Horrela, guztiontzako etorkizun bidezkoagoa eta iraunkorragoa lortu ahal izateko.

Funtsezko hainbat alderdi barnebiltzen ditu: Ipar Globaleko herrialdeek krisi ekologikoan daukaten/daukagun erantzukizun historikoa aintzat hartuta, Hego Globaleko herrialdeei beren ondorioetara egokitze-ko finantza mekanismoak aldarrikatzen ditu. Komunitate baztertuen, diru sarrera txikiko pertsonen eta gutxiengo etnikoen eskubideez arduratzen da, erabakietan parte izatea eskatuz, baliabide naturalak eta teknologia garbiak modu ekitatiboan eskuratzea sustatuz, eta baita komunitate kalteberak klima aldaketak eragindako baldintza berrietara egokitzeko proiektuak finantzatuz ere.

Ipar eta Hego globalaren arteko ezberdintasunaz gain, gurean ere klima aldaketaren ondorioak emakumei eta zaugarriagoak diren herritarrei eragiten die gehiago eta, beraz, jatorri, klase eta genero ardatzak kontuan hartu behar ditugu. Adibidez, Hego Euskal Herrian batez ere emakumeek jasaten dute pobrezia energetikoa, eta horrek egoera zaugarriagoan kokatzen ditu klima-aldaketaren eta horren ondorio zuzenenen aurrean. Horren arrazoi nagusia errentaren banaketaren egiturazko ezberdintasunak dira. Alde horretatik, energia berriztagarrietan edo eraginkortasun energetikoan inbertitzeko emakumeen aukerak mugatuagoak dira. Horrez gain, muturreko fenomeno klimatikoek eta osasunaren arteko erlazioari dagokionez, nazioarteko ikerketen arabera, emakumeak gizonak baino zaugarriagoak dira muturreko tenperaturen gertaeren aurrean. Etxeko lanez eta mendeko pertsonen zaintzaz batez ere emakumeak arduratzen direnez (gehienetan beste jatorri batekoak direlarik), gizonak baino denbora gehiago igarotzen dute etxean. Testuinguru horretan, pobrezia egoeretan dauden eta kalitate txarreko isolamenduak dituzten etxeetan bizi diren emakumeak zaugarriagoak dira, beraz, temperatura altuen eraginen aurrean.

Bada beste fenomeno bat ere justizia klimatikoan sar dezakeguna eta, beraz, kontutan hartu beharrekoa. Mundu mailako lehia ekonomiko neurrigabeak ezaugarritutako testuinguruan, klima larrialdiari aurre egiteko hartu beharreko neurriek inpaktu esanguratsu bat izan dezakete gure ehun industrialean, lantegi eta negozio askoren itxiera eta lanpostu askoren galera ekarri dezakeena. Krisi ekologikoari aurre egiteko sustatu beharreko politika publikoak justizia sozialean oinarritu behar dira eta, beraz, langileen nahiz gizarte sektore zaugarrienen bizi eta lan baldintza duinak bermatzeko neurriekin batera garatu behar dira.

4.4 Lurralde plangintzaren garrantzia

Eraldaketa ekosozialak lurralde antolaketan orain arte nagusi izan den ikuspegi antropozentrikoa eraldatzea eskatzen du; naturarekin, eta, beraz, lurraldearekin harremantzeko beste modu bat eraikiz. Hamarkada luzez mota guztietako azpiegituren garapena eta baliabide naturalen esplotazioa izan dira lurraldea antolatu eta planifikatzeko irizpide nagusiak, lurraldea hazkundean oinarritutako garapen ereduaren zerbitzura jarritz. Begirada hau errotik aldatu behar dugu, gizakiaren beharren eta naturaren kontserbazioaren arteko oreka berri bat bilatuz. Gizakiak beti baliatu izan du lurraldea bere beharrak asetzeko (elikagaiak, energia, ura, egurra, ...), eta horrela izaten jarraituko du etorkizunean ere, baina gure ingurune naturalarekin dugun harremana jasagarria izan dadin, ezin dezakegu ekosistema naturalen birsortze gaitasunetik haratago joan, hau da, gure beharren asetzea biodibertsitatearen zaintza eta berreskurapenarekin bateragarria izan behar da. Eta horrek, besteak beste, lurraldea antolatzeko tresna guztiak berrikustea eskatzen du, gorengo tresnetatik hasi eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorretaraino.

Berrikuspen hau bereziki premiazkoa da erregai fosilak albo batera utzi ahal izateko energia sorkuntza azpiegiturak ezinbestean lurraldera itzuli behar direlako. Hamarkada luzez gure energia beharrak kanpotik datozen erregai fosilak erabiliz asetu ditugu, honek dakarren kanpo menpekotasunarekin eta energia

iturri horiek sortzen zituzten ingurugiro inpaktuak beste lurralde batzuetara leku aldatuz, eta krisi ekologikoen adierazpide nagusienetako bat den klima aldaketa eraginez.

Gune urbano-industrialean eta degradatuetan energia ekoizteko dagoen potentzialitatearen inguruan egin diren azterketa ezberdinek agerian uzten dute ez ginatekeela egun kontsumitzen dugun energiaren %15a ere ekoiztera iritsiko eta, horrekin, urrunetik ere ezin daiteke gure jendartearentzat bizi eta lan baldintza duinak bermatuko dituen metabolismo sozio-ekonomiko bat mantendu. Ondorioz, arestian adierazi dugun bezala, auzia ez da eremu urbano edo degradatuetatik haratago energia berriztagarriak hedatu behar diren ala ez, baizik eta zein neurritan eta nola egin behar den hedapen hori ordenatua, iraunkorra eta justua izan dadin. Eta horretarako, lurralde plangintza gakoa da:

1. Lurraldearen ezaugarritze zehatz bat egin behar du, balio handieneko eremuak identifikatu eta babestuz, izan bertako basoek osatutako ekosistema naturalak, izan biodibertsitate altuko bestelako eremuak, izan balio kultural berezia izan dezaketen inguruneak. Eremu horiek azpiegitura berrien ezarpenetik salbuetsita gelditu behar dira eta berauek hobetu edo hedatzeko neurriak zehaztu behar ditu.
2. Basogintza eredia eraldatzeko baldintzak ezarri behar ditu, arraseko mozketak eta monokultiboa mugatuz, babestutako espazio naturalen azalera handituz, eta ekosistema naturalen arteko konektibitatea hobetuz.
3. Biomasa zuzenean errez energia elektrikoa ekoiztea saihestuko du, baita mota horretako azpiegiturak lurzoru urbanizaezinetan kokatzea ere.
4. Nekazaritzarako lur emankorrenak babestu behar ditu, edozein azpiegitura berrien ezarpenetik salbuetsiz.
5. Artifizializazio maila altu bat duten guneak (meategiak, zabortegiak, errepide bazterrak, kanalak, ...) energia ekoizpenera bideratzeko baldintza eta mekanismoak ezarri behar ditu.
6. Lurzoru urbanizaezinean proiektu fotovoltaiako eta eolikoak garatzeko tokirik egokienak identifikatu behar ditu, biodibertsitatean eta beste natur balioetan eragiten diren kalteak ebaluatuz eta minimizatuz, eta tokiko balio kulturalak kontutan hartuz. Halaber, proiektu hauen hedapena nekazaritza eta abeltzaintza jarduerekin bateragarria egiteko baldintzak ezarri behar ditu.
7. Ebakuazio sare elektrikoen inpaktua minimizatu behar du, proiektu bakoitzerako ebakuazio sare independenteen inpaktu metatua saihestuz, eta lurralde-unitate bakoitzerako ebakuazio estrategia bat planteatuz.
8. Zentral fotovoltaiako eta eolikoentzat prebentzio, jarraipen eta konpentsazio neurriak ezarri behar ditu, biodibertsitatean sortuko diren inpaktuak minimizatzeko neurriak hartzera behartuz, inpaktuak ebaluatzeko jarraipen programa zorrotzak aginduz, eta kokatuta dauden lurraldeko ekosistema naturalen berreskurapena sustatuko duten ekintza osagarriak identifikatuz.
9. Energia fotovoltaiako eta eolikoarentzat saturazio mailak (atalaseak) ezarri behar ditu, azpiegitura hauen hedapena orekatua eta jasangarria izango dela bermatzeko.

Lurraldea antolatzeke tresnak ezberdinak dira EAE eta Nafarroan (Trebiñuko eta Villaverde Turtziozoko barrutiak ahaztu gabe) eta, beraz, irizpide hauek txertatzeko modua ere ezberdina izango da lurralde bakoitzean. Nafarroaren kasuan lurraldea 5 eremu ezberdinetan banatzen da, eta eremu bakoitzak bere

lurralde-antolamenduko plana (LAP) dauka. EAE-ren kasuan antolaketa konplexuagoa da, lurralde antolamendurako gidalerroak (LAG), lurralde plan partzialak (LPP) eta lurralde plan sektorialak (LPS) daude.

Azken kasu honetan, arreta berezia jarri beharra dago lurralde plan sektorialetan (LPS) eta lurralde plan partzialetan (LPP). Lurralde plan sektorialeiei dagokionean bi dira, batez ere, goian aipatu diren irizpideak txertatze aldera garrantzia berezia hartzen dutenak: Momentu honetan tramitazioan aurkitzen den energia berriztagarrien LPSa eta nekazaritza eta basozaintzako LPSa.

Bestalde, funtsezkoa izango da tresna hauen errebisioan herritarren nahiz eragile ezberdinen parte hartzerako mekanismo zabalak eta efektiboak ezartzea eta, modu berezian, tokiko komunitate eta eragileen parte hartzea bermatzea. EAE-ren kasuan, lurralde plan partzialen errebisio prozesuak aukera egokia dira tokiko eragileak eraldaketa ekosozialaren dimentsio ezberdinetan (energia, elikadura, ura, biodibertsitatea, mugikortasuna, ...) lurralde plangintzaren ikuspegitik hartu beharreko erabakien parte egiteko.

5. Eraldatu beharreko sektore nagusiak

Egun bizi dugun krisi ekosozialak badauka dimentsio ekologiko-material bat, planetaren muga biofisikoen gainezkatzearen erantzulea dena eta, bestalde, badauka baita ere dimentsio sozial bat, harreman ekonomiko eta sozial desorekatuetan (Ipar-Hego, genero, klase, arraza,...) duena bere oinarria, eta egun bizi ditugun injustizia ezberdinen erantzulea dena. Ponentzia honen markoa eraldaketa ekosoziala den arren, eraldatu beharreko sektore nagusien identifikazioa egin dugunean, krisi ekosozialaren dimentsio ekologiko-materialean jarri dugu arreta, kontziente izanik ikuspegi mugatzailea dela, baina, era berean, aintzat harturik krisi ekosozialaren dimentsio guztiak ponentzia bakarrean lantzea gehiegizkoa izango litzatekeela. Badaude eraldaketa ekosozialaren ikuspegitik garrantzitsuak diren arlo edo sektoreak ponentzia honetan lantzen ez direnak (zaintzarena edo inmigrazioarena kasu), baina horrek ez du esan nahi eremu horiek EH Bildurentzat garrantzia txikiagokoak direnik. Ponentzia honetan lantzen ez diren arloek beraien eztabaida marko propioa izango dute, datozen hilabete-urteetan lantzen joango diren ponentzia ezberdinen bitartez.

Hau esanda, ondorengoak dira, egun bizi dugun gainezkatze ekologikoa soluzio bidean jartzeko, eraldatu beharreko sektore nagusiak, eta noski, baita beraien arteko erlazioak ere: industria, garraioa, eraikuntza, elikadura, turismoa, basogintza eta ura.

Jarraian, sektore bakoitzaren oinarritzko diagnostiko batekin batera, berauek eraldatzeko estrategia eta printzipio gidari nagusiak identifikatzeko saiakera bat egiten da, ondoren, printzipio gidari horietatik abiatuta, proposamen programatiko zehatzak eraiki ahal izateko.

5.1 Industria

Industria sektorean ematen da Hego Euskal Herriko energia kontsumo osoaren %35a eta, zuzenean edo zeharka, Hego Euskal Herriko jendartearen zati esanguratsu bat industrietatik bizi da, pixkanaka sektore hau pisua galtzen joan bada ere. Aberastasun iturri nagusia da, batzuetan besteko soldata altuenak dituen sektorea izanik. Siderurgia, metalurgia, energia, autogintza, makina erraminta eta elikagai industriak izan dira historikoki pisu gehien izan dutenak, papergintza eta zementugintza ahaztu gabe. Azken urteetan Informazio eta Komunikazio Teknologiek (IKT), ekipo elektronikoek eta biomedikuntzako industrietan ere gero eta pisua handiagoa hartu dute.

Euskal industrian eta gure bizitza ohituretan duen garrantziagatik, autogintza sektorea bereziki azpimarragarria da. Gure energia nahiz material kontsumoaren eta negutegi efektuko gasen isurien zati handi bat garraioari eta batez ere auto partikularren erabilerari eta merkantzien garraioari lotua dago, baina, era berean, gure Barne Produktu Gordinean pisu oso garrantzitsua du, % 20ra arte zenbait iturriren arabera (40.000 lanpostu zuzen inguru ditu EAEn eta 13.000 Nafarroan). Honek paradoxa baten aurrean kokatzen gaitu; auto partikularren erabilerari murriztea beharrezkoa izanik, gure ehun produktiboaren zati garrantzitsu bat garraio bide hau oinarri duen mugikortasun ez jasagarriak elikatzen du eta, bestalde, inpaktu bat du gure bizi baldintzetan eta baita gure ongizate sisteman ere, gure zergen zati handi bat autoen ekoizpenetik eta hauen erabileratik datorrelako.

Berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko europar araudiek autogintza sektoreari ezartzen dizkioten helburuek eta Txinako lehiakide berrien etorrerak birmoldaketa sakon bat eragingo dute sektorean, eta horrek inpaktu zuzena izango du Euskal Herriko ekoizpen zentroetan ere. Bestalde, auto gutxiagoko etorkizun baterantz joan behar gara eta horrek ekoizpen zentro ezberdinen berrantolaketa bat ekarriko du, planta batzuk itxiz eta ekoizpena gune jakin batzuetan kontzentratuz. Horren aurrean, Euskal Herrian kokatuta dauden ekoizpen zentroen etorkizuna ziurgabetasunez beteazaltzen da.

Birmoldaketa sakon bat beharko duen beste sektorea energiarena da. Enpleguaren ikuspegitik, Hego Euskal Herrian 30.000 pertsonatik gora ari da sektore honetan lanean (24.000 soilik EAEn; 6.000 oil & gas, 6.000 berriztagarriak, 6.000 sare elektrikoak...). Sektore honetan diharduen industriaren zati bat erregai fosilen ekoizpenera bideratzen da eta klima larrialdiari aurre egiteko bideorriek ezartzen dituen epeetan bere tamaina murriztuz joan beharko da, energia iturri berriztagarrietarako zein bektore energetiko berrietarako bidea egitearekin batera. Berriztagarrien sektorean berriz, kanpo kapitalen (Gamesa eta Accionaren kasuak) nahiz Txinako enpresa lehiakideen sarrerak egoera kezkagarri bat erakusten du. Berriztagarrien sektorea matrize energetikoaren eraldaketarako inoiz baino beharrezkoagoa denean, gure industria pisua galtzen ari da.

Autogintzarekin eta energiarekin batera, kontsumoan intentsiboak diren gainontzeko sektoreek; paper-gintza, zementugintza, bidria, altzairugintza edo siderurgiak esaterako, pisu espezifiko handia dute gure ekonomian, nahiz eta lanpostuei dagokienez pisu erlatibo txikiagoa izan. Industria hauek esportatzaileak dira oro har, eta emisio baxuko ekonomia baterantz egin beharreko trantsizioaren testuinguruan, sektore hauen deskarbonizazioa funtsezkoa izango da beren biziraupenerako. Industria hauen itxierak, isuriak murriztea baino, hauek leku aldatzea ekarriko luke. Hortaz, arreta sektore hauen deskarbonizazioan jarri beharra dago eta, horretarako, elektrifikazioa gakoa izango da.

Jakina da industria militarra ere pisu espezifiko duela Euskal Herrian zeharka eta zuzenean. Egoera geostrategikoaren aurrean industria honen aldeko mezuak zabaltzen ari dira. Diru publikoa industria militarra bideratzeak egin beharreko trantsizio ekologikotik aldentzea dakar, baita gure printzipio bakezaleen aurkako ekintza ere. Baina, are gehiago, industria militarrean inbertsioa igotzeak gerrate eta gatazka berrien sorrerarako baldintzak errazten ditu. Draghi txostenaren esanetan, Europak bere lehia-kortasunean ez badu jauzi bat egiten, hiru gauzetako bati egin beharko dio uko: ongizatea, segurtasuna edo ingurumena. Ez gaude ados. Ekuazio zuzena ondorengoa da: trantsizio ekologikoa serio hartu ezean, ongizateari zein segurtasunari uko egiten ariko gatzaizkie.

Ez guke industria sektoreari eginiko errepaso azkar hau bukatu nahi datu zentzoei erreferentziarik egin gabe. Digitalizazio prozesuek eta adimen artifizialaren garapenak dituzten beharrei erantzun asmoz datuak biltegitratzeko azpiegiturak abiadura ikaragarrian hedatzen ari dira, eta horrek asko handitu dezake uraren zein argindarraren kontsumoa datozen urteetan. Hau mehatxu argi bat da trantsizio ekologikorako, eta, bereziki, gure industriaren deskarbonizazio prozesurako, datu zentroak neurri gabe haziz gero, ez baita behar guztiei erantzuna emateko nahikoa argindar berriztagarri egongo. Zentzu horretan, begirada kritikoa izan behar dugu AEBetako enpresa teknologiko handien (Amazon, Google, Meta, ...) zerbitzura ematen ari den datu zentroen zabalkundearekin, aztarna material eta energetiko baxuagoa eta izaera deszentralizatua izango duen eredu alternatibo baten aldeko apustua eginez eta, horrela, gure datuen inguruko kontrola gure lurraldean bertan mantenduz.

Ezin dugu aipatu gabe utzi sare elektrikoaren gaitasun falta eta gure lurraldean (bereziki EAEn) dugun sorkuntza berriztagarri baxua mehatxu bat izan daitezkeela industriarentzat etorkizunean. Sektore ezberdinen elektrifikazioa eta sistema elektrikoaren deskarbonizazioa aurrera doazen heinean, eskaria eta eskaintzaren arteko tentsioak sortu daitezke eta, eszenatoki horretan, sare elektrikorako sarrera berriak baimentzerako orduan, sorkuntza berriztagarri nahikoa duten lurraldeak lehenestea baztertu ezin daitekeen aukera bat da. Hori gertatuko balitz, EAEko industria eta honi lotutako enplegua egoera oso zaurgarrian aurkituko lirateke.

5.1.1 PRINTZPIO GIDARIAK

Eraldaketa ekosozialaz ari garenean, industriarena sektore bereziki sensiblea da, sektore oso garrantzitsua izanik enpleguaren ikuspegitik, eraldaketa handiei aurre egin beharko dielako. Ekoizpen industrialari lotutako lehengai eta produktuen merkataritza fluxu globalak arrazionalizatu egin behar dira, hornidura kateak ahalik eta gehien tokikotuz. Industriaren kasuan, ordea, tokikotzearen eskala ezin daiteke Euskal Herria izan, txikiegia delako. Zentzu horretan, gure industriaren etorkizuna, ezinbestean, Europak izango duen bilakaerari loturik egongo da.

Industriaren eta teknologiaren esparruan burujabetza estrategikoa irabazteko Europak azaldutako asmoak eragin dezakeen hornidura kateen tokikotzea aukera bat izan daiteke gure industriaren birmoldaketarako, erregai fosilei loturiko aroa atzean utzi eta etorkizunean beharko diren teknologia, produktu eta zerbitzuetara bideratutako industria berri bat garatzeko. Eraldaketa hau konplexua izango da, maila ezberdinetako administrazio publikoen esku hartze sendo bat beharko du (Europatik hasita), eta kontu handiz egin beharko da, enplegu asko egongo baitira jokoan.

Zentzu horretan, azken hilabeteetan ikusten ari gara nola langileen aurkako neurriak hartzen direnean deskarbonizazioa aitzakiatzat erabiltzen den, eta eskuin muturrak hori baliatzen du “politika klimatiakoak” industriaren gainbehera eragiten ari direla esateko, enpleguan eman daitekeen galeraren erantzule eginez. Mezu hau oso arriskutsua da, AEBn ikusi den bezala, langile sektore zabalak eskuin muturreko hautu eta politika ekozidak babestera eraman ditzakeelako. Testuinguru horretan, industriarekiko garatzen dugun diskurtsoak berebiziko garrantzia izango du. Deskarbonizazioa ezin dugu industriarentzat “hondamendi” gisa ikusi, sistema ekonomiko eta soziala pertsonen eta ekosistema naturalen mesedetan eraldatzeko aukera historiko gisa baizik. Horretarako, ikuspegi ekosoziala jasoko duen industria politika sendo bat behar dugu, ondorengo printzipioetan oinarritu behar dena:

1. Erregai fosilei loturiko industria birmoldatu egin behar da, ikuspegi ekosozial batetik beharrezkoak izango diren sektoreak indartuz eta berrien aldeko apustua eginez, hala nola, energia berriztagarriak, materialen berreskurapen eta birziklapena edo mugikortasun elektrikoa.
2. Ekonomia zirkularraren aldeko apustu sendo bat egin behar da kanpotik datozen material eta lehen-gaiekiko menpekotasuna murrizteko.
3. Enpresei ekonomia zirkularraren printzipioak ezartzeko eta karbono aztarna murrizteko planak eskatu behar zaizkie, energia nahiz lehen erabilerako materialen kontsumoa murrizteko eta hondakinak minimizatu eta berrerabiltzeko neurriak jasoz.
4. Aurreikusitako zahartzearekin bukatu behar da, jabetzaren aurrean erabileragatik ordainketa ereduak lehenetsi behar dira, eta produktuen berrerabilpena eta konponketa sustatu behar dira.

5. Industria sektorearen birmoldaketa enplegua eta aberastasuna banatzeko politika zein neurriekin lagunduta eta sindikatuak aintzat hartuta egin behar da.
6. Ikerketan, garapenean eta berrikuntzan inbertsioak handitzea ezinbestekoa izango da etorkizunean lehiakorak diren enpresa eredu industrialak garatu ahal izateko. Europa mailako lurralde berritzailenen parera heltzea da helburua Barne Produktu Gordinaren % 3tik gorako inbertsioa bideratuz.

5.2 Garraioa

2021eko datuen arabera, mundu mailan garraioa berotegi efektuko gasen emisioen laurden baten erantzulea da, gutxi gora behera, eta munduan garraio sektorearen energia kontsumoren % 95a erregai fosiletatik dator, batez ere petrolio-produktuetatik. Nazioarteko Energia Erakundearen arabera, mundu mailan garraioaren emisioak % 1,7ko urteko batez besteko erritmoan hazi ziren 1990etik 2022ra, azken erabilerako beste edozein sektore baino azkarrago, industria izan ezik (% 1,7 inguru hazi zen hori ere). Garraio-sektorearen CO₂-emisioak urtean % 3 baino gehiago jaitsi behar dira 2030era arte, 2050erako sektore honek karbono neutraltasuna lortuko badu.

Hego Euskal Herriari dagokionez, gure energia kontsumo osoaren % 42a garraio sektorean ematen da. Hemen adierazgarria da Nafarroan auto berrien salmenten % 20 elektrikoak direla egun EAE-n % 6 diren bitartean. Era berean Nafarroan 2300 karga puntu daude eta EAE-n berriz 1300. Argi dago auto partikularren elektrifikazioa faktore positibo bat izan badaiteke ere, mugikortasun eta kontsumo eredu osoaren eraldaketa bat beharrezkoa dela klima aldaketari aurre egiteko.

Garraioaz hitz egiten denean, merkantzien eta pertsonen garraioa bereizi behar dira, ezaugarri ezberdinak baitituzte, eta, eraldaketaren ikuspegitik, politika ezberdinak eskatzen dituzte. Itsas garraioaren emisioak oso lotuta daude gure inportazioekin eta geroz gehiago ezinbestekoak ez diren osagai merkeen inportazioarekin. Hurbileko ekoizpen kateen indartzea ezinbestekoa da itsas zein errepidetako garraioari lotutako isuri hauek murriztu ahal izateko.

Azpiegituren inguruko hausnarketa orokor bat egitera behartuak gaude. Hemendik aurrera, lehenetasuna krisi ekologikoari aurre egiten dioten azpiegiturak garatzea izango da, eta aldiz krisi horretan sakontzen duten azpiegiturei galga jarri beharko genieke.

Puntu honetan, nagusiki, auto partikularren erabilera oinarri duen mugikortasun paradigmatikaren eraldaketaz arituko gara, zeinek erregai fosilen kontsumoa eta indibidualismoa sustatzen dituen. Subflubialaren moduko inbertsio milioidunekin amaitu behar da, eredu eta mentalitatea aldatu behar dira, auto partikularren nagusitasunean sakontzen dutelako eta ez dutelako mugikortasun jasangarri baterako bidean laguntzen. Hauen aurrean GI20 saihezbidearen boulevartzazioa Donostian edo PIO XII etorbidearen eraldaketa Iruñean izan daitezke erreferentziazko adibide batzuk, garraio publikoarentzako karril azkarren hedapena ere gure aldarria izango da eta KarKarCar kotxe elektriko partekatuen kooperatiba edo Eusko Car Sharing bezalako proiektuak mentalitate aldaketaren adibide ereduak izan daitezke, auto partikularren jabetzan oinarritutako mugikortasun ereduak gainditzeko.

Merkantzien garraioari dagokionean kontuan izan behar da itsasontzi bidezko garraio transozeanikoa-ren eta errepidetako garraioaren pisua murrizteko kontsumo ohituren eta zirkuitu ekonomikoaren aldaketa beharrezkoa dela. Ekonomia zirkularra da gako nagusietako bat, industrian materialen berrerabiltzea

sustatzeko esaterako; tokiko elikadura kateen garapenak ere berebiziko garrantzia izango du garraio beharrak murrizteari begira. Dena den, tren bidezko garraioak salgai guztien banaketan izan duen jaitsiera esanguratsua da. AHT-a eta Variante Sur Ferroviaria bezalako proiektuak aurkezten zaizkigu salgaien garraiorako alternatiba bezala, konponbidea bestelakoa denean. Ohiko tren lineetan eta salgaiak kargatzeko lotuneetan inbertsioak egitea askoz egokiagoa izango litzateke horretarako. Araba eta Nafarroa lotuko lituzkeen tren sozialaren alternatiba esaterako, honen adibide argiena izanik, AHT-aren alternatiba integral gisa: inbertsio txikiagoarekin, egungo plataforma aprobetxatuta zati handi batean, abiadura handia, aldiriko zerbitzuak eta salgaien garraioa ahalbidetuko lituzke.

5.2.1 PRINTZPIO GIDARIAK

Pertsonen loturiko mugikortasuna jasangarria izango bada ezin daiteke auto partikularrean oinarritu, eta, horretarako, paradigma aldaketa bat behar dugu, mugikortasun pribatu eta motorizatuak joan-etorrien banaketa modalean duen pisua murriztea posible egingo duena (desplazamenduen %60 dira gaur egun). Horretarako, ondorengo printzipio gidariak oinarri dituen eraldaketa bat abiatu beharra dago:

1. Bizitokiak eta lantokiak hurbildu behar dira mugikortasun beharrak murrizteko. Pertsonak beren enpleguak dauden tokira lekualdatu beharrean, enpleguak pertsonak dauden tokira lekualdatu behar dira, metropolizazio prozesuari galga jarritz, eta iharduera ekonomikoa lurraldean zehar banatuz.
2. Kotxe partikularren bideratutako garraio azpiegiturretan egiten diren inbertsioei galga jarri behar zaie, errentagarritasun sozial argi bat duten eta garraio publikoa bultzatzen duten azpiegiturak lehenetsiz, BRT (Bus Rapid Transit) sistemak kasu.
3. Hiri barruko eta hiriarteko garraio publiko kolektiboa eta inter-modalitatea sustatu behar dira, zerbitzu eraginkorrak eta ekonomikoki eskuragarriak eskainiz herritarrei.
4. Bidaiariak eta salgaiak errepedetik trenbidera eramateko moduak erraztu behar dira. Salgaien tren bidezko garraioa industria jasangarriaren garapenerako ere giltzarria izango da.
5. Motorrik gabeko mugikortasunari lehentasuna eman behar zaio, batez ere hiriguneetan, baina baita herri arteko ibilbideetan ere, bidegorri berezituak eta oinezkoentzako lehentasun guneak lehenetsiz, horrela oinezkoen eta bizikleten mugikortasun aktibo eta segurua sustatuz.
6. Ibilgailu partikularren erabilera murrizteko neurriak hartu behar dira, batez ere hiriguneetan, baina baita herrietan ere, oinezkoen eta mugikortasun ez motorizatuari lehentasuna eman.
7. Garraio publikoa aukera bat ez den kasuetan, mugikortasuna zerbitzu gisa eta kotxe partekatua sustatu behar dira, Ibilgailu partikularren okupazio tasa igotzeko neurriak sustatuz.
8. Garraioa elektrifikatu behar da (ibilgailu elektrikoak %70 efizienteagoak dira, errekontza motorreko ibilgailuekin alderatuta), erregai fosiletan oinarritutako ibilgailurik ez luke egon behar 2045ean.

5.3 Eraikuntza

Eraikinek eraldaketa ekosozialen duten eginkizuna garrantzitsua da, energia kontsumoan eta hondakinen sorreran duten eraginetik haratago, klima aldaketak eragindako muturreko fenomeno meteorologikoen aurrean babesgune nagusiak izango direlako.

Hego Euskal Herriko energia kontsumoan duten pisua %21-koa da, eraikuntza parkea nahiko zaharra da, eta, oro har, isolamendu maila baxua dute. Horren ondorioz, efizientzia energetikoaren ikuspegitik eraikin gehienek kalifikazioa nahiko baxua da.

Eraikinetan ematen den energia kontsumoaren gehiengoa berokuntza sistemei loturikoa da, nagusiki erregai fosilekin egiten dena (gas naturala eta gasolioa). Gaur gaurkoz, argindar kontsumoak duen pisua berokuntza sistemek dutena baino askoz baxuagoa da, 3-4 aldiz baxuagoa gutxi gora behera. Hala ere, badaude salbuespenak, zerbitzu eraikin handiak (ospitaleak, unibertsitateak, kiroldegia, bulego eraikinak, ...) adibidez. Kasu horretan, argindarrarekin dabilzan aire bidezko klimatizazio sistemak aurkitu daitezke, eta aireztatze sistemei dagokien argindar kontsumoa ere esanguratsua izan daiteke. Horren aurrean, diseinu arkitektoniko jasagarrien bidez aireztatze naturala oinarri duten alternatibek eraikin hauen karbono azterna nabarmen murriztu dezakete. Klima aldaketaren ikuspegitik, eraikin hauek bero kolpe eta larrialdi garaietan komunitatea babesteko egitura bezala pentsatzea ere interesgarria izan daiteke.

Bestalde, eraikuntza sektorea hondakin sortzaile handia da, horregatik eraikuntzarako erabiltzen diren materialen bizi zikloa eta karbono azterna kontuan hartu beharreko elementuak dira. Material berriztagarri (egurra adibidez) edo birziklatuen erabilera sustatu beharko litzateke, ingurune hurbilean eskuragarri daudenak lehenetsiz.

Azkenik, eraikinak ezin dira hirigintzatik at aztertu, eta, modu egokian integratu behar dira auzo eta herrien diseinuan, azpiegitura berdeekiko oreka zainduz. Herri eta hirien antolamenduan azpiegitura berdeak txertatzea ezinbestekoa izango da, uholde edo bero boladei erantzuteko ezinbesteko elementuak izango direlarik. Ibai arroak eraikinetatik libre izan behar dira, eta hiriguneetan azpiegitura berde jarraia sustatu behar dira, landare kapa baxuak, ertainak eta altuak txandakatuz, eta ingurune naturalekin konektatuz. Hirigintza eredu berri bat behar dugu, irizpide hauek txertatu eta lurraren artifizializazioari mugak jarriko dizkiona, zoru iragazkaitzak ahal den neurrian mugatuz.

Era berean, gure hiri eta herrien antolamenduan bizikidetza komunitarioaren ikuspegia txertatzea ere ezinbestekoa izango da. Eraldaketa ekosozialak gizarte egitura sendoak behar ditu, ongi komunikatuak eta elkarri laguntzeko prest egongo direnak.

5.3.1 PRINTZPIO GIDARIAK

Eraldaketa ekosozialaren ikuspegitik, eraikuntza sektorea ondorengo printzipio gidariak jarraituz eraldatu beharreko beste sektore bat gehiago da:

1. Eraikinei loturiko energia kontsumoa murriztu behar da birgaitze energetikoaren aldeko apustu sendo bat eginda.
2. Erregai fosilekin dabilzan berokuntza sistemak energia berriztagarriekin dabilzan sistemengatik ordezkatu behar dira, biomasa galdarak eta, nagusiki, airean edo lurpean dagoen beroa energia iturri bezala erabiltzen duten bero ponpa elektrikoak izanik eskalagarritasun handiena duten teknologia (aeroterminia eta geotermia kasu). Azken hauek, gainera, errektuntzan oinarritutako sistemak baino hiru aldiz eraginkorragoak dira.
3. Energia sortzeko teknologia berriztagarriak txertatu behar dira eraikinetan; eguzki energia termikoa edo fotovoltaikoa kasu.
4. Eraikin berrietan zein birgaitzeetan beren bizitza zikloan azterna ekologiko baxuena duten materialak lehenetsi behar dira, ahal den neurrian hurbileko materialak erabiliz.

5. Ekonomia zirkularrari lotutako kontzeptuak txertatu behar dira eraikuntza sektorean ere, materialak berreskuratuz eta ahal den neurrian berrerabiliz.
6. Biodibertsitatea eta klima aldaketarako egokitzapena arkitekturan zein hirigintzan integratu behar dira, harreman sozialak eta naturarekiko harremanak espazio eta eraikinen diseinuan txertatuz.
7. Lurraren artifizioalizazioari mugak jarri eta lurzoruen iragazkortasuna kontuan hartuz hiri plangintzetan.

5.4 Elikadura

Egungo elikadura sistema globalizatua dago eta Euskal Herriko lehen sektorea ere hornidura kate global horietan txertatuta dago. Lehen sektoreak Euskal Herrian ekoizten dituen elikagaien ehuneko txiki bat solik kontsumitzen da lurraldean bertan, gehiengoa exportaziora bideratzen da eta, era berean, kontsumitzen ditugun elikagaien gehiengoa inportatzen dugu. Beste modu batera esanda, Euskal Herriko lehengo sektorea ez dago elikadura burujabetzaren bueltan ardaztua.

Gainera, egungo elikadura sistema globalizatuaren azken helburua ez da elikatzea, etekin ekonomikoa lortzea baizik. Sistema honek prezio oso baxuan saltzera behartzen ditu ekoizleak eta, ondoren, ekoizpen unitateak bideragarri egiteko diru laguntza publiko zuzenak bideratzen ditu, horrela kontsumorako elikagai merkeen eskaintza bermatu asmoz. Multinazionalen eskuetan dauden hazi transgenikoen, nahiz ongarri eta pestizida kimikoen gero eta mendekoagoa da eta oso sistema xahutzailea da, elikagaien herena uztan, garraioan, prozesamenduan edo banaketan galtzen baita. Gero eta ageriago gelditzen ari den bezala, sistema hau kolapsorako bidean dago.

Bestalde, elikadura sistema globalizatuak krisi ekologikoaren eragileak eta biktimak dira aldi berean. Klima aldaketari erreparatzen badiogu, inpaktuak jasaten lehenak dira eta, aldi berean, berotegi efektuko gasen munduko isurketen heren baten erantzuleak dira.

Nekazaritza eta abeltzaintza industrializatua eta horrekin lotutako lur erabileraren aldaketak dira elikagai sistemei lotutako ingurumen inpaktuen eragile nagusiak. Inpaktu horietako gehienak ekosistema naturalak suntsitzearen emaitza dira (ohian tropikalak, etab.). Naturari hartutako lur horiek oinarritzeko laboreak ekoizteko sistemetara bideratzen dira nagusiki, intsumo kimiko eta energia asko erabiliz. Nekazaritzarako baso soiltzearen % 67 industria monolaborantzei dagokie, elikagaiak eta pentsuak ekoizteko. Bereziki, merkatu esportatzaileetarako diren soja, artoa, palma olio eta ganadu okela ekoizteko. Monolaborantzetan erabiltzen diren intsumo kimikoen artean, erregai fosilekin ekoiztutako ongarri sintetikoak eta pestizidak daude. Era berean, intsumo hauen erabilerak, biodibertsitatean galera handi bat eragiteaz gain, lurraren birsortze gaitasuna agortzen du, ongarri kimikoekiko menpekotasuna areagotuz.

Elikadura burujabetza da EH Bilduren apustu estrategikoa eta, ondorioz, gure egiten ditugu bere printzipioak. Bi eraldaketa nagusi egin behar ditugu gure herrian elikadura burujabetzan jauzi bat emateko:

1. Elikagaiak ekoizteko eta banatzeko kate globalak ahalik eta gehien birkokatu behar dira, horretarako tokiko elikadura sistemak artikulatuz.
2. Ekoizpen eredu intentsiboetatik eredu agroekologikoetarantz jo behar dugu.

5.4.1 PRINTZIPIO GIDARIAK

Elikadura burujabetzan gure herriak behar duen jauzia egiteko estrategia zein politika publiko zehatzak definitu eta garatzeko unea da. Herri ikuspegia berreskuratu behar dugu, bai nekazaritzari dagokionez, bai abeltzaintzari dagokionez ere. Epe ertain eta luzerako estrategiak zehaztu behar ditugu, barne merkatu egonkorrak sendotzeko, espekulazio prozesuetatik babestuz. Garrantzitsua da prozesu hori denboran zehar erreferentziazko ipar bat izanik bistaratzea, eta azpimarratzea prozesu hori lehen sektoretik haratago doala eta administrazio publikoen, gizarte zibil antolatuaren eta, orohar, herritar guztien helburu partekatua izan behar dela. Elikadura burujabetzarako prozesua energia trantsizioaren epe-mugetan irudikatzea proposatzen dugu, administrazio publikoen lidergoan, azken helburuak nahiz tartekoak erronka honetan inplikaturik dauden eragile ezberdinekin batera zehaztuz, eta ondorengo printzipio gidarietan oinarrituz:

1. Tokiko eta hurbileko elikadura, politika publikoen ardatz egituratzailea bilakatu behar da. Elikagaien erosketa publikoa aldaketa palanka erabakigarria bihurtu behar da eta, horretarako, bost urteko epean erosketa publikoaren bidez eskaintzen den elikaduraren % 40 bertakoa eta hurbilekoa izatea proposatzen dugu, ekoizle berrien eta eskala txikiko ekoizpenetan sartzen diren elikagaiei lehentasuna emanez.
2. Tokiko elikadura sistemak eraikitzeko, eskualdeko elikadura estrategiak eraiki behar dira. Tokiko merkatuen biziberritzea eta jangela kolektiboak (publikoak zein pribatuak) tokiko elikagaiekin hornitzeko proiektu pilotuen bidean sakontzea proposatzen dugu..
3. Tokiko merkatuak biziberritu behar dira, Km0 elikadurako erreferentziazko gune gisa ezaugarrituz.
4. Plangintza ausartak sustatu behar dira baserriratze prozesuetan, pertsona berriak nekazaritza jardueran sar daitezen sustatzeko. Errelebo eraginkorreko prozesuen artikulazioak ekoizpen ereduaren eta elikadura sistemen aldaketa prozesuak bizkortu ditzake.
5. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arteko elkarrekintza eskemetan sakondu behar da, pentsuetarako eta bazkarako landare proteinak ekoizteko aukera ematen duten txandakatze sistemak sustatuz, horrela kanpo mendekotasuna murrizteko.
6. Lurraren erabileran eta kontsumitzen ditugun produktuen ekoizpenean urratsak eman ahala produktu horiek herritarrek ohikotzat dituzten saltokietan merkatutzeko politikak ere sustatu behar dira.
7. Plagizida, antibiotiko eta ongarrien erabilera murrizteko helburuak zehaztu behar dira, gutxienez Europar Batasuneko “baserritik mahaira” estrategian zehazten diren helburuetara iritsiz: %50eko murrizpena plagizida eta antibiotikoen erabileran, %20ko murrizpena ongarrien erabileran, eta nekazaritza eta abeltzaintza lurren %25a erabilera ekologikora bideratzea 2030 urterako.

5.4.2 TOKIKO ELIKADURA MAHAIAK

Tokiko elikadura burujabetzarako estrategiak pentsatu eta garatzeko tokiko elikadura mahaiak osatzea proposatzen dugu, herri mailan, zein eskualde eskalan tokiko baldintzen eta behar zein gaitasun politikoaren arabera. Eskualde eskala bereziki interesgarria izan daiteke jangela kolektiboak hornitzera bideratutako elikadura ekoizpen sistemak artikulatzearen ikuspegitik. Elikadura ekoizpen sistema hauek ardura partekatuko eskemetan oinarrituta garatu behar dira, ekoizleak babestu eta lan baldintza duinak eskain-

tzeko baldintza egokiak sustatuz, merkatu logikatik kanpo. Horretarako funtsezkoa da udalen, jangela kolektiboak kudeatzen dituzten eragile publiko nahiz pribatuen, zein bestelako eragileen inplikazio eta konpromezua. Eskualde eskalan garaturiko elikadura sistema hauek Euskal Herri mailako sare zabalago batekin konektatuta egon beharko lirateke, eskualde bakoitzaren ezaugarri klimatiko eta orografikoen arabera ekoitzi daitekeena beste baldintza batzuk dituzten lurraldeetan ekoitzi daitekeenarekin osagarrituz, euskal eskalan ahalik eta autosufizientzia handiena lortzea helburu izanda. Zentzu horretan, osagarritasun handia dago Bizkaia eta Gipuzkoako eskualdeen eta Araba eta Nafarroa hegoaldearen artean.

Eskualdeez gain, hirigune handiek ere aukera interesgarriak eskaintzen dituzte tokiko elikadura ekoizpen sistemak artikulatzearen ikuspegitik, hiriguneen eta hauen periferian dauden landaguneen arteko harreman sinbiotikoak eraikiz. Zentzu horretan, bereziki interesgarria da horrelako sistemak eraikitze Gasteiz eta Iruñeak daukaten potentzialitatea.

Dauden ustiategiak egoki dimentsionatzeko eta etorkizunean baserriratuko direnek lurra eskuragarri izan dezaten lurralde plangintza egoki bat behar da, besteak beste, basogintzara eta elikadura ekoizpenera bideratutako lur azalaren arteko oreka egoki bat bermatuz eta basoko artzaintza mistora bideratutako eremuak sortuz eta, era berean, jarduera hauek energiaren ekoizpenarekin eta biodibertsitatearen zaintzarekin bateragarri eginez.

5.4.3 ELIKADURA BURUJABETZARAKO EUSKAL HERRIKO SAREA

Euskal Herriaren luze zabalean, hainbat dira, merkaturatze bide ohikoetatik kanpo, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko zubiak eraikitze lanean ari diren ekimenak, Ekoalde edo Errigora bezalako ekimenak kasu. Tokiko elikagai ekoizpen sistemen eta merkaturatze bide berriak sustatzen dituzten ekimenen arteko saretzea gakoa izango da, ekoizleei lan eta bizi baldintza duinak bermatzearekin batera, elikadura burujabetzan jauzi bat egiteko, horretarako ekimen eta lurralde ezberdinen arteko osagarritasuna bilatuz. Ez da EH Bilduren rola saretze hau sustatzea, baina bai guk gobernatzen ditugun instituzioak, zein Udalbiltza bezalako instituzio nazionalak, elikadura burujabetza estrategia nazional baten zerbitzura jaretzea.

5.5 Turismoa

Euskal Herrian turismoa berria ez bada ere, azken bi hamarkadetan hazkunde nabaria izan duen jarduera da. Etorkizunean ere, neurririk hartu ezean, goranzko joera izango duela dirudi. Gainerako erakargarriez gain, larrialdi klimatikoari loturiko errealitateak gure herria are desiragarriagoa bihurtu dezakeelako. Pentsa dezakegu gero eta jende gehiagok aukeratu dezakela gure lurraldea beste hainbat ohiko helmugatan somatzen ari diren muturreko eguraldia dela eta.

Euskal herriko eremu guztietara ez bada masiboki zabaldu ere, dagoeneko inpaktu ekonomiko, sozial zein ekologiko esanguratsuak ditu. Barne Produktu Gordinaren %6 inguru suposatzen du, Donostia bezalako leku konkretuetan %13tik gora igotzen delarik, eta enplegu sorreran ikuspegitik ere pisu esanguratsua hartzen ari da. Turismoak, beraz, aberastasuna eta lanpostuak sortzen ditu, baina esan daiteke albo kalte sozial nabarmenak ere sortzen dituela atalase batzuk gainditzten dituenean, izan gentrifikazioa, espazio publikoaren masifikazioa, higiezinaren espekulazioa, egunerokotasunaren garestitzea, baliabideen xahutzea, prekarizazioaren betikotzea (behin behineko lan gaizki ordainduaren zabalpenaren bidez), akulturazio prozesuak, ehun sozialaren desagitea edo garraio publikoaren eta zerbitzu publikoen satu-

razioa (osasun edo hondakinen bilketa zerbitzuak, esaterako). Turismoak baliabide asko behar ditu eta azpiegitura publikoez elikatzen da, eta maiz hauek saturatzen ditu.

Larrialdi ekologikoaren ikuspuntutik, turismoak leku konkretuetan sortu dezaken presio ekologiko zein sozialaz gain, turismoaren zeharkako kalteak kontutan hartu behar dira. Turismoaren aztarna ekologikoa mugikortasunari eta honen energia kontsumoari oso lotua dago. Beraz, aztarna ekologiko osoa kontutan hartu behar da. Bai kanpotik ona datorren turismoari begira, baita guk kanpoan turismoa egiten dugunean ere. Hau dela eta, elikadurari edo energiari buruz egiten dugun hausnarketa baliagarria da. Bertatik bertarako turismoaren sustapena lehenetsi behar da mugikortasun handia eragiten duena baino.

Inpaktu sozial eta ekologikoak kontutan hartuz, turismoa ere ongi planifikatu beharreko jarduera da, sozialki, ekologikoki eta lurralde plangintzaren ikuspuntutik, beti ere interes sozial orokorra gailendu dadin. Industria turistikoaren eta bertako biztanleen interesak kontrajarriak izan daitezke, tokiko egitura ekonomikoan desorekak sortu daitezke eta, gure ustetan, interes orokorra gailendu behar da.

Beraz, esku hartze publiko sendoa eskatzen du jarduera honen erregulazioak. Planetaren karga ahalmenaz hitz egiten dugun moduan, leku bakoitzak duen karga turistiko ahalmenaz ere hitz egin beharko genuke. Lurraldea eta bertako herrien karga ahalmena ongi aztertu behar dugu, izan ekologikoki, fisikoki, ekonomikoki, eragindako zama sozialaren ikuspuntutik eta baita erabiltzaileen saturazio ikuspuntutik, gehiegizko masifikazioak bidai esperientzia bera okertu baitezake. Tokian tokiko errealitatearen azterketen arabera, gainkarga turistikoa dagoela ondorioztatzen denean, honi bideratutako azpiegiturak mugatu behar dira, tokian-tokiko baliabide publikoen erabilera turistikoa konpentsatzeko tasa turistikoak ezarri, ingurumena kontserbatu edo lehengoratzeko ekotasa bat ipintzea baloratu edota helmuga turistikoa indartzeko bideratuak dauden kanpainak eten. Turismoaren plangintza etengabeko prozesua da, eta batzuetan neurri prebentiboak behar ditu.

Finean, turismoa muga jakin batzuen baitan (karga ahalmenaren arabera) mantendu behar da, sektorea hazi edo bidaiariak handitu baino urte osoan eta lurralde osoan zehar banatzea bilatuz, lan baldintza duinak eskainiz eta bidaiariei tokiko produktu eta zerbitzuak eskainiz tokiko merkataritza eta eragile kulturaren mesedetan. Era berean, gure hizkuntza eta kulturaren erakusle gisa erabiltzen saiatuko gara, planifikazioan gobernantza irekia sustatuz, eta turismo diru-sarreraren gehiegizko mendekotasuna ekidinez.

5.5.1 PRINTZIPIO GIDARIAK

Krisi ekologikoaren ikuspuntutik, turismoak leku konkretuetan sortu dezaken presio ekologiko zein sozialaz gain, turismoaren zeharkako kalteetan jarri behar da arreta. Aurrez aipatu bezala turismoaren aztarna ekologikoa mugikortasunari eta honen energia kontsumoari oso lotua dago. Larrialdi klimatikoari aurre egiteko energia kontsumoa nabarmen jaitsi behar dugun testuinguru historikoan, turismoa ondorengo printzipio gidariak jarraituz eraldatu beharreko sektorea da:

1. Turismoaren sustapenari galga jarri behar zaio, promozio turistikoa hurbileko herrialdeetara mugatuz. Zentzu horretan, ez da nazioarteko proiektzioa ematen diguten azpiegitura turistiko berriak egiteko garaia, Urdaibaiko Guggenheima kasu.
2. Ostatu eskaintzari galga jarri behar zaio, hotelak, pisu turistikoak eta Airbnb bezalako aukerak mugatuz, bereziki saturazio egoeran dauden hiriguneetan.

3. Urtaro ezberdinetan eta lurraldean zehar modu orekatuan banatuko den hurbileko turismo eredua sustatu behar da, hiriguneetatik eta kostaldeko herrietatik haratago, gure bereizgarri kultural, historiko eta naturalak balioan jarritz.
4. Barne turismoaren sustapenaren bitartez, turista bezala guk geuk eragiten dugun aztarna ekologikoa murriztea bilatuko dugu.

5.6 Basogintza

Basogintza eta baso egituraren arabera Euskal Herria hiru eremu nagusitan banatu daiteke. Isurialde atlantiarreko mendebaldea eta ekialdea iparraldean, eta isurialde mediterranea hegoaldean. EAE aipatzen da aktibitate ekonomiko gisa basogintza aktiboen mantentzen den gunetzat. Izan ere EAEn 2019an bataz beste 3,35 m³ zur atera zen hektareako, Nafarroan 2022an 0,26 eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan 2017an 0,20 m³/ha izan ziren, beti ere azalera osoa kontuan izanik. Horren beste adierazle bat da adibidez 2023an moztutako 19.515 intsinis pinu hektareak.

Euskal Herriko isurialde atlantiarrean jabetza pribatua nagusitzen den arren, ez da kudeaketa bera nagusitzen Bizkaia edo Zuberoan. Mendebalderantz industrializazioa eman ahala zabaldu da intsinis pinuari lotzen dugun basogintza intentsiboa. Ekialdean landagunean mosaiko itxurako banaketa aurki dezakegu, non zelaiak, soloak eta eremu zuhaiztuak txandakatzen diren. Nafarroa eta Araban aldiz, zuhaiztiek azalera handiagoa hartzen dute unitateko, nahiz eta lurralde mailan eremu zuhaiztua txikiagoa den. Kudeaketa ere nabarmen aldatzen da isurialde mediterraneoan. Hemen aurkituko ditugu Herri Onurako mendi ugari, ordenazio maila altuarekin eta kudeaketa eredu desberdinekin. XIX. mendean eman zen azalera zuhaiztuaren minimoa Euskal Herri osoan. Ordutik basogintza intentsiborantz emandakoa urratsak, naturalizazioa eta bestelako landaketa ekimenek, gaur gaurkoz Euskal Herriaren azaleraren %41a zuhaitzez estalia izatera eraman dute (Europako bataz bestekoa %39 da).

Baso ekosistemek eta basogintzak azken mendeetako industrializazio eta globalizazioa prozesuen eragin ugari jasaten dituzte. Ekoizpenera bideratutako espezieetatik hasita, hauen zuraren merkaturatzea nabarmen aldatu da XIX. mende amaieraz geroztik. Mundu mailako garraioak eta pertsonen mugimenduak bultzatuta, gaitz eta izurrite berrien eragina intentsifikatuz joan da XXI. mende hasiera honetara arte. Gaztainondoen gorrin eta tinta, zumarren grafiosia, haritzaren zurina, pinuen txankro eta bandak, lizarraren gaitza, gaztainondoen liztorra, eukaliptoaren gaitz eta kakalardoak... eragin ekonomiko larria izan duten globalizazioaren ondorioaren adibide ezagunenetakoak dira. Kasu askotan eragin ekologiko handia ere eragin dute, adibidez gaztainadien gainbeherarekin.

Merkatu globalaren dinamikak zeharo baldintzatzen du basogintzaren sektorea. Zuraren eta zelulosa pastaren merkaturatze prezioak nazioarteko merkatuen mende daude. Eskandinavian edo Ipar Amerikan ematen diren gora beherak gurean ere nabaritzen dira, mozketak azkartu edo motelduz. Dinamika bortitza izaten dira, nagusiki hazkuntza azkarreko landaketei lotuak daudelarik.

Bestalde, klima aldaketak eta honi lotutako haizeteen ugaritzeak, udako lehortearen intentsitateak eta tenperaturen igoerak, aurretik aipatutako prozesuei batu eta are eta ziurgabetasun maila handiagoa sortarazten dute. Klima aldaketaren testigu diren hainbat fenomeno izan ditugu azken urteetan. Suteak, pinuen gaitzaren intentsifikazioa, pago eta ler gorrien udako hostaila galerak... asko dira adibideak.

Metrika desberdinak erabili daitezkeen arren, Euskal Herriko baso ekosistemen egoera aztertu duten erakunde gehienak bat datoz: egoera eskasa edo txarrean daude gure inguruko baso gehientsuenak. Gehien errepikatzen diren gabeziak bioaniztasun falta, lur galera, egitura garapen eskasa edo egur hil eta zuhaitz beteranoen gabezia dira. Mendeetako ustiaketa onorioak ulertzen hasi garen arren, baso ekosistemen berreskurapena, hein handi baten behintzat, baso horiek kudeatzeko hautatutako ereduaren mende dago.

5.6.1 PRINTZPIO GIDARIAK

Aurreko ataletatik ondoriozta daitezkeen bezala, azken mendeetan emandako aldaketa globalek basogintza ataka larrian kokatu dute XXI. mendaren hasiera honetan. Bestalde, baso ekosistemei orain arte aitortu ez zaizkien funtzio berriak aitortzen zaizkie egun: karbono hustulekuak, uraren emari eta kalitatearen zaintza, biodibertsitatearen zaintza, aisialdia, ... eta, beraz, zuraren ekoizpenaz gain, bete beharreko beste hainbat funtzioez ari gara. XXI. mendearekin batera ekosistema ezberdinak kudeatzeko orduan, paradigma aldaketa bat eman dela esan genezake. Ekosistema zerbitzuez ari gara. Hamarkada batzuk badira kontzeptu hau ikerketa eta akademian lantzen ari dela, eta azken urteetan kudeaketara ere iritsi da baso ekosistemekin dugun harremana ulertzeko paradigma berri hau. Denbora luzez, basogintza baso ekosistemek eskainitako zerbitzu batzuen maximizazioaz arduratu da, nagusiki zur edo zuntz ekoizpena handitzeko teknikak garatuz. Ekologia aplikatuaren eta basogintzaren zientzien arteko konbergentziak emandako fruitu nagusienetarikoa bat da ekosistema zerbitzu ezberdinen hornidura bermatu behar bada, zur eta zuntz ekoizpena barne, optimizazio estrategietara jo behar dela, maximizazio estrategietara baino, lurraldearen konpartimentazio bipolarra saihestuz. Gaurdaino burututako ikerketa gehienek argi adierazten dute estaldura jarraia mantendu eta naturatik hurbilekoa den basogintza ereduak betetzen duela egokien estrategia hau. Hauek izango lirateke naturatik hurbilekoa den basogintza ereduaren printzipio gidariak:

1. Egitura-aniztasuna: adin, tamaina eta zuhaitz espezie aniztasuna sustatzen du, basa bizitzarako habitat konplexuagoa eta anitzagoa sortzeko. Horrek basoaren erresilientzia areagotzen lagun dezake izurriei, gaixotasunei eta beste estres faktore batzuei dagokienez.
2. Jarraitutasuna: denboran zehar baso estaldura jarraitua mantentzea du helburu, aldi berean eremu handiak moztu beharrean. Horrek lurzorua, ura eta basa bizitza babesten laguntzen du.
3. Birsorkuntza naturala: zuhaitzen birsorkuntza naturala errazten du, landatu edo erein ordez, eta horrek aniztasun genetikoari eta zuhaitz espezieen tokiko egokitzapenari eusten lagun dezake.
4. Baso-ekosistemen lehengoratzeta: Baso-ekosistemen biodibertsitatearen hobekuntza frogatzeko, beharrezko diren lehengoratzeta-neurriak ezarri behar dira adierazle hauek goranzko joera izateko. Biodibertsitate adierazleak hobetzeko behar diren zuhaitz gehigarriak landatzeko konpromisoa hartzea, printzipio ekologikoak erabat errespetatuz eta espezieen eta adinaren arabera egituraren aniztasuna bermatuz.
5. Kanpoko sargaiak murriztea: ingurumenean inpaktu negatiboak izan ditzaketen ongarrien, pestiziden eta kanpoko beste sargai batzuen erabilera mugatu beharra dago.
6. Kontsiderazio sozioekonomikoak: basoek giza komunitateentzat duten garrantzia aitortzen du eta helburu ekologikoak behar sozial eta ekonomikoekin orekatzea bilatzen du. Zur edo zuntz ekoizpena lortzeko beharko diren lursailen plangintza egin eta horretarako egokienak diren sailak hautatuaz.

5.7 Ura

Egokitzea eta Arintzea bide bereko erreiak dira klima aldaketari aurre egiteko norabide bakarrean. Arintzeak karbonoa hartzen du kudeaketa gai, ezinbestean, modu zabalean onartua dena; baina Egokitzeak ura hartu behar du, eta, zoritxarrez, hau ez dago hain onartua. Arintzearen apustuak plane-tako herrialde guztiak lotzen ditu (energia politikak), denok konpartitzen baitugu zeru globala; hots, at-mosferak berdintzen gaitu. Egokitzearen apustua, ostera, lurralde bakoitzean gauzatu behar da, ur-ziklo globala konpartitu arren ur-baliabideak lekuan lekuko lurraldeari baitagozkio; lurraldeak bereizten gaitu (ur-politika, nekazaritza-basogintza politikak, lurralde antolamendua). Hortaz, Egokitzea ezin da berdin kudeatu Erriberan, Pirinioetan, kostaldean, barnealdean edo Lautadan, kasurako.

Areago, giza-jarduerak (lurraldearen okupazioa eta horren aldaketak, hirigintza arduragabea,...) ur-ba-liabideetan (uren kalitatean ezezik kantitatean ere, ebapotranspirazioan izan daitezkeen aldaketenga-tik) izan dezaketen eragina klima aldaketatik espero daitezkeen eraginaren tamainakoa izan daiteke, edo handiagoa ere. Kontua da lurraldea ez dela klima aldaketatik eratorri daitezkeen ondorio hidrologikoen hartzaile hutsa, baizik eta ondorio berrien kausa ere, beste haien gehigarri (lurralde-antolamenduaren ondorio hidrologikoak). Hortaz, Egokitzea gaur egun erronka handiagoa da atzo izan zena baino eta, se-gur aski, handiagoa izango da etorkizunean egun dena baino.

Plangintza hidrologikoaren tresna nagusiak Plan Hidrologikoak dira (Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak eta Lehorteen Plan Bereziak ere plangintzaren parte direla). Plan Hidrologikoak 6 urteko ziklotan kateatzen dira eta egun indarrean ditugunak hirugarren plangintza-zikloarenak dira: 2022-2027.

Bestalde, uraren kudeaketaren ikuspegitik, ibai arroa (ura eta lurra) funtsezko lurralde unitatea da, lur gai-nean eta lurpean, denbora eta espazio eskala ezberdinetan izaten diren era askotako prozesu hidrologikoen ekosistema bizia baita. Euskal Herrian, salbuespenak salbuespen, ibai arroak nahiko bat datoz eskualdee-kin, azken finean, giza-jarduerak eta azpiegiturak ibaiek zabalduetako haranei jarraituz garatu direlako.

5.7.1 PRINTZIPIO GIDARIAK

Ur baliabideen gaineko gaurko ezagutza aurrez aipaturiko plangintzetan dago. Ez dagokigu guri ibai arroen aparteko planak egitea, horretarako aparteko arrazoi teknikoak ez badira behintzat. Guri dago-giguna da plangintza hidrologikoaren bestelako gobernantza sustatzea, arroz arro, eskualdez eskualde, lurralde eskala honetan planek egiten ez dutena sustatuz, hau da, ur-zerbitzuak lurraldeko beste zerbi-tzuekin modu zeharrekoan lotuz (energia, nekazaritza, biodibertsitatea), herritarren benetako esku har-tzea ahalbidetuz, kudeaketa gardenduz (informazioa zabaldu, erabakiak informatu ...).

Gaur gaurkoz eskualdeak, eta udalerriak berak ere (berez legeak ur-zerbitzu batzuk hauen esku utzi arren), kudeaketa hidrologikotik oso aparte bizi dira. Izan ere, salbuespenak salbuespen, iragan hurbilera arte partzuergo handietan sartzeko joera izan da udalen partetik, ur-zerbitzuen gaineko ardura zama bihur-tuta zutela (giza- eta ekonomia-baliabidetan), udal txikietan areago. Horren ondorioz, uraren kudeaketa goragotik eta urrunagotik egiten da, ur partzuergoak oinarri horizontal eskaseko piramide bertikalegiak direla. Eta honi buelta ematen hasi behar da, ondorengo printzipio gidarien arabera:

1. Eskualdea kudeaketa hidrologikoan esku hartzeko esparrua izan behar da, lurralde unitate egokiena delako horretarako (ibai arroa kontuan hartzea berezkoa dutelako, onarpen juridikorik ez izan arren), eta ezinbestean urari lotuak diren beste elementuak, nekazaritza eta energia kasurako (baina baita biodibertsitatea ere), lurralde eskala horretan dutelako integrazio aukera eraginkorrena.

2. Kudeaketa integratua egin behar da, non ur baliabideena ezezik urarekin lotura duten beste sektoreen kudeaketa ere uztartu behar den, trantsizioaren ikuspegi zeharrekoa bermatuz. Areago, gaur egunean badira eskualdeetan kudeaketa integratu hori bideratzeko hainbat tresna, mankomunitateak kasu, orain artean ohikoak izan dituzten jarduera ildoak elementu berri horiei zabaltzeko aukera eman dezaketenak (ura, energia eta elikadura gutxienez).
3. Kudeaketa integratua, eskualde mailako lurralde antolamendu arduratsurako giltza da, gidalerro nagusiak goitik etorri arren lurraldetik bertatik gauzatu behar direlako, lurraldeko giza eragileekin batera, beti ere interes orokorra bermatuz: ibai arroko muga biofisikoekin bateragarria den garapen eredua trantsizioari begira antolatuz.

5.7.2 ESKUALDEKO UR-MAHAIK

Lehenago aipatutako kudeaketa integratuaren norabidean, eta gaur egun eskualde mailan ur baliabideei aitortzen zaien lurralde garrantzi eskasa aintzat hartuta, eskualdeko ur mahaiak eratzea proposatzen da horretarako baldintza eta gaitasuna dagoenean, funtsean lurralde eskala horretan urari lotutako alderdi guztiak mahai gainean jarri eta eskualdeko eragileak mahai horren bueltan jartzeko asmoz, trantsizio-rako bidean eztabaida sustatzeko. Mahai horren funtzioen artean ondokoak jarri daitezke abiapuntuan:

1. Informazioa zabaldu. Izan ere, gaurko bide zuzena bezeroa-partzuergoa izaten da; eskualdeak hartu beharko luke zubi funtzioa, ez bakarrik ur kudeaketaren informazioa eta datuak zabaltzeko (kontsumoak sektoreka, tendentziak, arazoak, aurreikuspenak ...) baizik eta eskualde mailako diagnosia eskaintzeko, aldian-aldian.
2. Goiko erakundeek eta partzuergoek eskualdean burutzen duten, edo nahi duten, ur kudeaketa gain-begiratu, eskualde mailan klima aldaketari aurre egiteko izaten diren egokitze-planetan integratua izan dadin. Areago, ur mahaiaren legezko eskumena ez bada ere, goitik aurreikusitako interbenzioetan (kudeaketan zein azpiegiturretan) *aholkulari beharko luke izan*, hots, erabakiak informatu, mahaiko eragileak baitira lurraldea bere horretan ondoen ezagutzen dutenak.
3. Beste sektore batzuekin batera (energia eta elikadura, funtsean, baina ez bakarrik) diagnostiko integratuak eskaintzeko aldian-aldian, eskualdea aldi bakoitzean trantsizio bideko zein paradatan dagoen jakin eta etengabeko eztabaida kritikoa sustatzeko asmoz.
4. Ura hartuneak babestea. Azken finean, ur-hartuneak, orokorrean, gune estrategiko bezala hartu behar dira egokitzearen ikuspegitik, eta sarritan partzuergoek operatibo mantentzen ez dituzten arren, udalek, eta eskualdeek hartu beharko lukete ardura hori, eta guneok eskualdeko planeamenduan sartu eta ezagutarazi.

6. Energia: eraldaketa ekosozialerako giltzarri

6.1 Sarrera

Aurreko sektore guztien eraldaketarako sistema energetikoa giltzarria izango da. Izan ere, energia baita beste edozein sektoreen funtzionamendurako oinarritzko osagaia.

Hego Euskal Herrian, azken energia kontsumoa 80 TWh ingurukoa da. Pertsona bakoitzeko 28 MWh inguru. Baina hori ez da gure azterna energetiko osoa. Horri erantsi behar diogu, batetik, eraldaketa eta garraio prozesuetan galdutako energia primarioaren % 25a eta, bestetik, inportatutako eta esportatutako produktuen balantzean sartutako energia. Baturaren arabera, gure azterna energetikoa 40 MWh ingurukoa da pertsona eta urte bakoitzeko. Azterna hori, munduko batz bestekoaren bikoitza da.

Energia matrizean, energia berriztagarriek % 14ko ekarpena egiten dute eta alde nabariak daude Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean. Nafarroan berriztagarriek pisu handiagoa dute. Erregai fosilek, berriz, orotara % 80tik gorako ekarpena egiten dute. Bestalde, elektrizitatea gure azken energia kontsumoaren %25a ingurukoa da.

Kanpo energiaren ia erabateko menpekotasuna dugu (%85tik gora). Honek suposatzen duen guztiarekin: erabiltzen dugun energiak sortzen dituen inpaktuen esternalizazioa, energia hori gurera garraitzeak dituen isuriak, faktura energetiko gehigarria, finean, nazio gisa eragiten digun zaurgarritasun geopolitikoa. Kanpo energia mendeotasuna murriztea, beraz, herri gisa dugun eginkizun funtsezkoetako bat da.

Sektoreka aztertuta, hau nabarmendu daiteke: energiaren % 42 garraioan kontsumitzen da, % 35 industria-sektorean, % 21 eraikinetan (bizitegiak, administrazioa eta saltokiak) eta % 2 lehen sektorean, hurrenez hurren. Deigarria da garraioak gure energia kontsumoan duen pisua, gero eta handiagoa gainera.

Datu guzti hauek modu zehatzagoan daude jasota EH Bilduk 2022ko martxoan plazaratu zuen energia estrategiaren dokumentuan.

Fosilak nagusi diren matrize energetiko honi buelta eman eta krisi klimatikoari aurre egin ahal izateko, hiru eraldaketa nagusi eman behar dira egungo sistema energetikoan:

1. Gure energia kontsumoa nabarmen murriztu behar dugu, % 50 bitarte gutxi gora behera.
2. Energia berriztagarriak baliatu ahal izateko elektrizitateak gure azken energia kontsumoan duen pisua % 25 ingurutik % 65 izatera pasa behar da, horretarako sektore ezberdinak ahalik eta gehien elektrifikatu behar direlarik.
3. Elektrizitate berriztagarriaren sorkuntzan jauzi bat egin behar dugu, nagusiki eolikoan eta fotovoltai-koan, horiek direlako gaur egun eskuragarri dauden teknologia berriztagarrien artean beharrezkoa den eskalara hazi daitezkeen bakarrak.

6.2 Energia sorkuntza

Aurrez aipatu bezala, aditu ezberdinekin batera landutako energia trantsiziorako estrategia proposamenaren plazaratu zuen EH Bilduk 2022ko martxoan. Bertan, Hego Euskal Herriak 2045. urtean neutraltasun klimatikoaren erdiesteko egin beharreko bidea marrazten zen, autohornikuntza tasari eta energia murrizketari zegozkion helburu zehatzetan oinarrituta. Era berean, helburu eta hipotesi horiek aintzat hartuta (% 50eko murrizketa azken energia kontsumoan, % 75eko energia autohornikuntza tasa, eta % 65eko elektrifikazioa azken energia kontsumoan), energia berriztagarriari loturiko teknologia ezberdinekin ekoitzi beharreko energia kopuruak kalkulatu ziren, nagusiki fotovoltaikoarekin eta eolikoarekin, horiek direlako eskalagarritasun handiena daukaten teknologiak. Zehaztu ziren helburu horien arabera, 12.500 GWh inguru ekoitzi beharko genituzke energia fotovoltaikoarekin eta beste 12.500 GWh energia eolikoarekin 2045. urterako. Ondorioz, potentzia instalatuari dagokionean, 3.000 MW berri inguru beharko genituzke eolikoan eta 10.000 MW berri inguru fotovoltaikoan. Eskura dauden ikerketa ezberdinek argiki islatu izan duten bezala, eremu urbano-Industrialean nahiz zonalde degradatuetan (meategiak, zaborte-giak, teilatuak, industriaguneak, errepide bazterrak, kanalak, ...) teknologia fotovoltaikoa erabiliz energia ekoizteko dagoen potentziala esanguratsua izanik ere (egungo kontsumo elektrikoaren herena gehienez ere), ez da inolaz ere nahikoa energia behar hauek estaltzeko. Eta eolikoaren kasuan, aldiz, eremu horien potentziala oso baxua da.

Datu hauen aurrean, eta egun bizi dugun krisi klimatikoan Ipar Globaleko herrialde gisa daukagun erantzukizuna aintzat hartuta, energia berriztagarrien hedapenerako posizio eta estrategia politiko propioa izatea ezinbestekoa zaigu.

Ez dago energia iturririk —ez beste inolako jarduerarik— ingurumenean inpakturik sortzen ez duenik. Eta energia berriztagarriak ez dira salbuespena. Edozein azpiegitura garatzean ekidin ezinak dira azpiegitura bera ekoitzi, garraiatu eta eraikitzeak eragingo dituen ingurumen inpaktuak; bai materialen erauzketari lotutakoak, bai urrats ezberdinetan eragindako karbono aztarnarenak, bai lurraren erabilpenean sortzen direnak. Horregatik, lurralde ezberdinetako giza taldeetan eta ekosistema naturaletan eragiten diren inpaktuak ebaluatzerako orduan ingurumen justiziaren eta justizia sozialaren perspektibak aintzat hartu behar dira. Zentzu horretan, energia berriztagarrien hedapenarekin batera, betiereko hazkunde ekonomikoaren paradigma gainditzea eta energia kontsumoa murriztea dira trantsizio energetiko justu batek bete beharko lituzkeen baldintza nagusiak. Edozein kasutan, sistema energetiko berriztagarri eta zirkular baten inpaktu orokorra, nagusi den sistema fosilarena baino askoz txikiagoa izango da. Horregatik, zentral eoliko eta fotovoltaikoen hedapenaren aurkako posizio itxi eta erabatekoa (zenbat, non eta nola ezarri beharko liratekeen eztabaidatzeari uko egiten diona), ez da posizio politiko eraldatzailea, are gehiago, gure herrian gertatzen ari den bezala, horren ondorioa erregai fosilak erretzen jarraitzea baldin bada.

Azkenik, energia nuklearraren aldeko aldarria berriz ere zabaltzen ari den honetan, argi utzi nahi dugu teknologia honekiko aurkakotasuna. Euskal Herriak historikoki teknologia hau arbuiatu du, bizitzaren aurka duen arrisku handiagatik eta etorkizuneko belaunaldiei uzten zaien arazo bat delako. Istripu nuklear baten arriskuak errotik moztu beharko luke energia hau alternatiba bezala aurkezteko aukera. Ikuspegi ekonomiko hutsetik ere teknologia hau ez da bideragarria, sortzen dituen hondakinen kudeaketa bere gain hartu beharra duen eskema batean. Ikuspegi geopolitikotik, uranioaren inportazioak hidrokarburoen inportazioaren zaurgarritasun bera edo handiagoa aurkezten du. Okupatu dezakeen espazio

txikia eta CO2 isuri urriak, aldeko argudio bezala agertuko badira ere, fisio nuklearraren teknologia ezin da inoiz alternatiba arduratsu bezala hartu, dakarren arriskuagatik. Ez zentral handien bertsioan, ez azkenaldian iragartzen ari diren eskala txikiko erreaktore modularretan ere. EHBilduren apustua, finean, sistema energetiko %100 berriztagarriaren aldekoa da.

6.2.1 PRINTZIPIO GIDARIAK

Energia berriztagarrien zabalkundea modu orekatu, ordenatu eta justuan eman dadin, EH Bilduk ekimen politikoa hartu behar du. EH Bilduk ez badu energia berriztagarrien hedapenaren nolakotasunean eragiteko ildo politiko eraginkorrik garatzen, egun bizi den blokeo egoera betikotzeko edo hedapen hori energia enpresa pribatuek gidatuta eta beraien interesen zerbitzura gertatzeko arriskuak, askoz handiagoak izango dira. Horregatik, energia matrizearen eraldaketa justu baten aldeko borroka erdigunean jarriko duen ildo politiko propioa izan behar dugu, eta ondorengo zazpi printzipio gidarien arabera garatu behar da:

1. Energia berriztagarrien zabalkundeak administrazio publikoen lidergo sendoa behar du, bai trantsizio energetikoaren diseinuan eta planifikazioan, bai sare elektrikoaren garapenean, bai energia sorkuntza azpiegituren eraikuntzan eta partaidetzan, edota energia horien biltegiatzean eta merkaturatzean.
2. Lurralde eskala bakoitzak bere energia kontsumoaren ardura hartu behar du, energia kontsumoa murrizteko politika eta neurriak zehaztuz, eta autosufizientzia konektatuaren ideari jarraiki, energia sorkuntzan jauzi bat eginez.
3. Energia sorkuntza azpiegiturak lurraldearen energia beharren zerbitzura egongo direla bermatu behar da eta, horretarako, azpiegitura horien jabetza publiko-komunitarioaren aldeko apustu sendoa behar da.
4. Lurralde plangintza egoki baten eskutik, energia berriztagarrien zabalkundea xede anitzeko ekintza bilakatu behar da, naturaren balio anitzak bermatuz, eta ekosistema naturalen zaintza zein berreskurapenean eta elikadura burujabetzan jauzi bat eginez.
5. Energia proiektuak jasoko dituzten herri eta komunitateentzat mota ezberdinetako konpentsazio neurriak ezarri behar dira, eta energia sorkuntza azpiegiturak kokatuko diren lur sailen jabetza energia enpresen eskuetan gelditzea ekidin behar da.
6. Tokiko komunitate nahiz eragileak hartu beharreko erabakien parte egin behar dira, beraien parte hartze efektiboa bermatuz.
7. Berriztagarrien hedapena komunitate zientifikoaren aholkularitzarekin egin behar da, disziplina anitzeko lan talde batek eskaini dezakeen informazio eta ikuspegia aintzat hartuta.

Printzipio gidari hauek lurralde eskala guztietan aplikatu behar dira, tokiko eskalatik hasi, eskualde eskalatik pasa eta herrialde nahiz nazio eskalaraino, lurralde eskala bakoitzaren ezaugarri orografiko eta biztanle dentsitate ezberdinak medio, helburu propio eta orokorreki ekarpena egiteko gaitasuna guztietan berdina ez dela aintzat hartuta, eta lurralde eskala eta herrialde ezberdinen arteko erantzukidetasuna eta elkartasuna oinarri izanda.

6.2.2 AUTOSUFIZIENTZIA KONEKTATUA

Autosufizientzia konektatua da energia berriztagarriak hedatu eta energia sorkuntza demokratizatzeko EHBilduren eskema estrategikoa. Estrategia horren helburua ahalik eta gertuen ahalik eta autosufizientzia energetiko handiena lortzea da, beti ere energia sorkuntza azpiegituren ahalik eta jabetza publiko-komunitario handienarekin, behetik gorako logika batekin autokontsumoaren eta sorkuntza azpiegitura handi/ertainen arteko osagarritasuna bilatuz, halako moldez, non lurralde eskala bakoitzak bere gain hartuko duen bere lurraldearen nahiz Euskal Herriaren energia kontsumoaren gaineko erantzukizuna, erantzukidetasunaren eta elkartasunaren printzipioen baitan.

Oinarrian tokiko eskala egongo litzateke. Eskala horretan autokontsumo indibidual zein kolektiboaren sustapenari eman behar zaio lehentasuna, komunitate energetikoak izanik eskala horretan energia ekoizpena demokratizatzeko gure apustu nagusia. Eremu urbano eta degradatueta energia ekoizteko dagoen potentziala ahalik eta gehien aprobetxatu behar da, teknologia fotovoltaikoa izanik eskalagarritasun handiena duena, biomasaren aprobetxamenduarekin batera. Tamaina txiki-ertaineko zentral fotovoltaikoek ere (1-5 MW) eginkizun bat izan dezakete eskala horretan, eta helburua ahalik eta autosufizientzia maila handiena lortzea da.

Gorengo eskalan EAE eta Nafarroa egongo lirateke. Eskala hauei berriztagarrien hedapen ordenatu eta orekatu baterako markoa ezartzea dagokie, horretarako beharrezkoak diren arau eta lurralde plangintza tresnak garatuz (Energia berriztagarrien LPS-a EAE-ren kasuan), eta planifikazio eskala ezberdinen arteko koherentzia eta osagarritasuna bermatuz. Eskala horretan egindako lurralde plangintzak berriztagarrien hedapenerako plangintza energetikoari erantzun behar dio, EAE edo Nafarroa mailako deliberazio prozesuetatik jasotako gomendioak aintzat hartu behar ditu eta gutxieneko potentzia instalatu bat bermatu behar du. Horretarako, aldagai ezberdinak aintzat hartuta, zentral eoliko eta fotovoltaikoen kokapenerako toki optimoak identifikatu behar ditu, aukera emanez eskala ertaineko plangintza tresnei kokapenak egokitu edo/eta berriak zehazteko, beti ere gutxieneko potentzia helburuak bermatuz, argi adieraziz zeintzuk diren erdietsi nahi diren sorkuntza helburuak eta zentral berriztagarrien kokapen eta eskala ezberdinak modu egokian justifikatuz.

Tartean egongo litzateke eskala ertaina, funtzionaltzat hartzen dena lurralde antolaketaren ikuspegitik (LPP-ak EAE-ren kasuan eta LAP-etan zehaztutako eremuak Nafarroaren kasuan), non bat egiten duten behetik gorako (tokiko eskalatik abiatutako autosufizientzia konektatua) eta goitik beherako (EAE/Nafarroa mailako lurralde plangintza) prozesuek. Eskala honetan berriztagarrien lurralderatzearen inguruko eztabaida sakon bat eman behar da, tokiko eragile eta herritarrak eztabaida horren parte eginez, eskala ertaineko lurralde plangintza tresnen errebisioaren markoan.

Lurralde unitate ertain guztiak ariketa hau egitera behartuta daude: EAE edo Nafarroa mailako lurralde plangintzek berriztagarrien hedapenerako gutxieneko helburuak zehaztu beharko lituzkete, eta hortik harago pentsatu beharko genuke, eskualdez eskualde, zer ekarpen egiten dion gure lurraldeak. Horretarako aintzat hartu behar da lurralde-justiziaren nozioa: ez da arrazoizkoa landa eremua azpiegitura energetikoz betetzea (energia sortzaile huts bihurtzea) eta hiri-industriaren ingurunea sorkuntzatik at uztea (energia kontsumitzaile huts bihurtzea), eta ez da onargarria lurralde batzuk proiektuz lepo beteta egotea eta beste batzuek apenas edukitzea energia berriztagarrien sorkuntzarik. Lurralde unitate ertain guztiek eta lurralde historiko guztiek erantzukizun partekatua dute energia sorkuntzari egin beharreko ekarpenean, konbinatuz lurralde bakoitzak bere energia kontsumoarekiko duen erantzukizuna, lurraldeen arteko oreka eta elkartasun printzipioa.

Bestalde, tokiko eragileek (izan udalek, izan herritarrek komunitate energetikoen bitartez edo izan enpresek) aukera dute tokiko eskalan sortu dutena beste energia iturri batzuekin osagarritzeko. Eguzki energia sektorean oinarritutako autokontsumoaren bitartez (indibiduala zein kolektiboa), tokiko eragileek nolabaiteko autosufizientzia maila bat lortuko lukete tokiko eskalan, zentral eoliko edo fotovoltaikeen jabetzan parte hartuz osatuko litzatekeena eta, horrela, autokontsumo fotovoltaikoa eta energia sorkuntza azpiegitura handi/ertainak elkarren osagarri lirateke, herritarrentzat nahiz tokiko eragileentzat autosufizientzia maila handi bat eta argindarraren prezio justu eta egonkor bat bermatuz. Zentzu honetan udalbiltza bultzatzen ari den bigarren mailako Energia Komunitateen sarea ekimen aipagarria da.

Autosufizientzia konektatuaren eskema hau posible izan dadin gobernuen lidergo sendoa behar da, besteak beste, energia sorkuntza azpiegitura handi/ertainen sustapenean gutxieneko jabetza publiko bat bermatuz, eta tokiko administrazio publikoek, komunitate energetikoek, nahiz gainontzeko tokiko eragileek ere jabetzan parte hartzeko formulazio juridiko egokiak bilatuz.

Bestalde, berriztagarri eskala ezberdinak (autokontsumoa eta eskala handi/ertaineko azpiegiturak) aldi berean garatu behar dira, larrialdi klimatikoan egonik eta klima justiziaren nozioa jarraituz, Ipar Globaleko herrialdeak garelako Berotegi Efektuko Gasen isuriak lehendabizi eta abiadura handiaren murriztu behar ditugunak.

6.2.3 TOKIKO ENERGIA MAHAIAK

Gaur gaurkoz, EHBilduk tokiko eskalan dauka energia berriztagarrien zabalkundearen nolakotasunean eragiteko ahalmen handiena. Horregatik, tokiko baldintza, behar, zein gaitasun politikoen arabera, inizatiba politikoa hartzea eta Tokiko Energia Mahaiak sortzea proposatzen dugu. Lurralde unitate bakoitzak energiaren erronkari egin beharreko ekarpenaren inguruan deliberatzeko eta sortu edo aurreikusi daitezkeen arazoei irtenbide partekatatuak eskaintzeko. Eskala, herria edo eskualdea izan daitezke, nahiz eta eskualde eskala hobesten dugun, batez ere herrien tamaina txiki-ertaina denean, hobeto islatzen delako gure energia kontsumoaren patroia.

Tokiko Energia Mahaietan gai honetan zer esana duten tokiko eragileek parte hartuko lukete, modu ireki eta zabalean, inor bazterrean utzi gabe, eta aztergai den lurralde unitatearen energia kontsumoa eta energia sortzeko duen potentziala neurtzetik abiatuko beharko lirateke. Diagnostiko horretatik aurrera, herritarrekin batera egin beharreko deliberazio prozesu bat diseinatu beharko litzateke, ondorengo helburuak izango lituzkeena:

1. Tokiko eragile nahiz herritarrak krisi ekosozialarekin nahiz energiarekin erlazionatutako gaietan hezi eta trantsizio energetikoaren korapilo ezberdinen inguruan informazio egokia jaso eta hori kontutan hartuz aukera ezberdinen inguruan deliberatzea.
2. Lurralde unitate horrek tokian tokiko eta Euskal Herriko energia trantsizioari egin beharreko ekarpenaren inguruko ikuspegi partekatua eraikitzea.
3. Energia kontsumoa murrizteko helburuak zein horiek erdiesteko neurri eta ekinbideak zehaztea.
4. Energia sorkuntza berriztagarrian jauzi bat egiteko neurri eta ekinbideak zehaztea.

Tokiko Energia Mahaiak bideratutako deliberazio prozesuen emaitzak aintzat hartu beharreko inputa izan behar dira eskala ertaineko lurralde plangintza tresnen errebisiorako, EAEren kasuan, bereziki LPPen errebisio prozesurako. Era berean, plangintza tresna hauen errebisio prozesuek tokiko komuni-

tateen parte hartzerako mekanismo efektiboak garatu behar dituzte, tokiko eragile eta herritarrek hartu beharreko erabaki ezberdinen parte egiteaz. Tokiko mahaia sortuko ez diren tokietan ere, horretarako baldintzarik ez dagoelako, herrietako edo eskualdeen diagnostiko eta plangintza energetikoaren arabera-ko deliberazio prozesuak sustatuko ditugu.

6.2.4 EAE/NAFARROA MAILAKO AKORDIO SOZIALAK

Tokiko eskalan garatuko den ekimen politiko hau, EAE eta Nafarroa mailan garatu beharreko ekimen politikoarekin osagarritu behar da. Horretarako, klima neutraltasuna lortzeko egin beharreko bidearen inguruko adostasun zabal bat lortzeko prozesu sozial bat abiatu beharra dago. EAEren kasuan, 1/2024 Trantsizio Energetiko eta Aldaketa Klimatikoko legeak agintzen duen eran eta Nafarroa Garaia-ko kasuan, 4/2022 Foru Legeak ezartzen duenari jarraiki Klimaren Asanblada Herritarra eta Batzorde Soziala aintzat hartuz.

Prozesu horretan, eskala ezberdinetako instituzio publikoek, alderdiek, sindikatuak, enpresa ordezkariak, talde ekologistek eta unibertsitateek parte hartu beharko lukete eta, era berean, herritarren ikuspegi eta gomendioak jasotzeko mekanismo ezberdinak abiatu beharko lirateke, entzute prozesuak edo Klimaren Asanblada kasu. Akordio sozial horiek, EAE-n nahiz Nafarroan indarrean dauden trantsizio energetiko eta klima aldaketaren legeetan jasotako helburuak lortzeko gomendioak jaso beharko lituzkete, arreta berezia jarritz energia berriztagarrien zabalkunde ordenatu eta orekatuarekiko nahiz energia kontsumoa murrizteko garatu beharreko lurralde plangintza, politika publiko eta neurrietan.

6.3 Tramitazioan dauden proiektuak

Berriztagarriek deskarbonizazioan jokatzeko funtsezko papera eta CO₂ isuriak jaisteko premia kontutan hartuta, dagozkion planifikazio instrumentuak zehazten diren bitartean, proiektu guztiak geldiaraztea baino, dagoeneko izapidetzen ari diren proiektuak ponentzia honetan jasotzen diren ikuskera eta baldintzetara egokitzea izango da helburua.

Eztabaida udaletara iristen denean, argi utzi behar da eskumenak zeintzuk diren, udal karguei ez dagozkien ardurak ez egozteko. Berriztagarrien hedapena modu desordenatuan eta interes lukratiboz bete etortzen ari bada, marko arautzailearen eta lurralde zein energia planifikazio eskasaren ondorioa da, eta ez da onargarria egoera bideratzeko eskumen eta ahalmen gutxien duen maila administratiboan fokoa jartzea.

Maila instituzional guztietan, berriztagarrien hedapen ordenatu eta demokratiko baten alde egingo dugu eta proiektu zehatzekiko gure posizioa horien inguruan existitzen diren baldintzei erreparatuz hartuko dugu.

Zeintzuk dira proiektuek bete beharko lituzketen baldintzak:

1. Izapidetze gardena eta garbia izatea. Legedi administratiboa eta ingurumen araudia zorrotz betetzea.
2. Sustatzaileek, hasieratik, toki-eskualdeko administrazioaren eta herritarren deliberazioen ondoriozko ekarpenak aintzat hartzea.
3. Sortzen den elektrizitatea inguruko kontsumitzaileei prezio justuan eskaintzea.

4. Jabegoa konpartitzeko eskema ausartak planteatzea, parte hartze publiko-komunitario ahalik eta handiena sustatuz.
5. Ingurumen zein tokiko garapen sozioekonomikorako konpentsazio neurri argiak izatea.

6.4 Sare elektrikoa

Sare elektrikoa munduko azpiegitura teknologiko garrantzitsuenetariko bat da. Gure bizi baldintzak ez lirateke gaur egun direnak izango sare elektrikorik gabe. Sistema elektrikoa bere horretan oso zabala da eta lau ataletan banatzen da: elektrizitatearen sorkuntza (zentral elektrikoak), elektrizitate hori goi-tentsioko kableen bidez garraiatzea (garraio sarea), azken bezeroenganaino banatzea (banaketa sarea) eta merkaturatzea.

Elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sistemak elektrizitatea sortzen den tokitik gure etxeetara, bulegoetara, fabriketara... eramaten du, horri deitu ohi diogu sare elektrikoa.

Energia elektrikoaren garraioa eraginkorragoa da goi tentsioan, oso galera txikiekin distantzia handira garraiatu daiteke argindarra. Horregatik, sareek goi-tentsioa (138 kV, 220 kV edo 400 kV) erabiltzen dute zentral elektriko handietatik azpiegituraz eta estazio transformadoreetara. Sare elektrikoa aipatzen dugunean garraio eta banaketa sarea barne hartzen dituen kontzeptuaz ari gara. Iparraldean EDF enpresa publikoak egiten ditu garraioa eta banaketa eta, Hegoaldean berriz, Red Electricak egiten du garraioa eta Iberdrolak banaketaren zati handiena, herrietako banaketa sareetan zenbait salbuespen badira ere.

XX. mendean zehar mundu osoan sare elektrikoak eredu hierarkiko eta zentralizatu baten arabera garatu ziren, zentral hidroelektriko, nuklear eta termikoetan oinarrituta nagusiki. Sorkuntza zentral handietatik kontsumo guneetara goi tentsioan eramaten da elektrizitatea (energia galera oso txikiekin), ondoren tentsioa murriztu eta azken kontsumitzaileei helarazteko. Erregai fosiletan oinarritutako matrize energetikoaren eraldaketak bi erronka nagusi jartzen dizkio sare elektrikoari:

1. Energia iturri berriztagarri nagusiak (eolikoa eta fotovoltaikoa) aprobetxatu ahal izateko abiatu beharreko sektore ezberdinen elektrifikazioak argindar kontsumoa modu esanguratsuan handitzea ekarriko du.
2. Energia sorkuntza azpiegitura berriztagarriak lurraldean barreiatuta daudenez eta hauen energia ekoizpena fenomeno naturalen menpekoez, sare elektrikoaren kudeaketa askoz konplexuagoa bilakatzen da.

Erronka hauei aurre egiteko hainbat hobekuntza egin behar dira sare elektrikoan: sarea digitalizatu behar da energia fluxuak monitorizatu eta kudeatu ahal izateko, sare elektriko sendoa eraiki behar da, ondo konektatua, ondo saretua, sistema elektriko berriztagarriari eta industria edo mugikortasuna bezalako sektoreen elektrifikazioari fidagarritasunez eta nahikotasunez erantzungo diona. Horretarako, biltegitratze azpiegiturak ere behar dira, energia berriztagarrien aldakortasunari modu malguan erantzuteko.

Hori dela eta, sare elektrikoan inbertsio handiak egin beharko dira, eta inbertsio horiek gure egitura sozio-produktiboaren nahiz energia berriztagarrien zabalkunde ordenatu eta planifikatu baten mesedetan egingo direla bermatzeko, gakoa izango da gure instituzioek horren inguruko erabakimena irabaztea eta, epe luzera, sare elektrikoa euskal instituzioen kontrolpean egotea.

Izan ere, dagoeneko bi arazo antzeman ditugu. Alde batetik, erregai fosilen erabileraren eta elektrizitatearen erabileraren arteko trantsizioa egiten ari diren enpresak daude, baina sare elektrikoak ez du enpresa horiei zerbitzua emateko behar adinako gaitasunik. Bestetik, Forestalia eta Solariaren proiektuak ditugu. Forestaliaren kasuan, Aragoiko zentral eolikoetatik datorren energia Arabako azpiestazioetara konektatu nahi dute. Solariaren kasuan, Araban projektatutako zentral fotovoltaikoetan sortutako energia Bizkaiko Zierbenako azpiestaziora eraman nahi dute. Bi kasuetan, ebakuazio lerroa gisa pasarazi nahi da argi eta garbi garraio lerroa bat dena eta garraio sarea plangintza publikoari lotuta dagoena. Kudeaketa horretan guztian, gaur egun Euskal Herriak ez du erabakitze eskumenik. Euskal Herriko garraio sareari buruzko erabakiak hartzea estrategikoa izango da burujabetza energetikorako bidean.

Sektore elektrikoaren beste etapetan ere azpimarra jarri beharra dago. Banaketa sareari dagokionean, sarearen jabetza eta kudeaketa bereizten dituzte europar araudiek, baina praktikan Hego Euskal Herrian enpresa pribatu berberen esku daude bi aktibitate hauek. Gure kasuan, Iberdrolaren esku daude biak, baita horregatik ordaintzen diren bide-sariak ere. Banaketa sarearen jabetza publikoa izateko apustua egiten dugu.

Azkenik, argindarraren merkaturatzeari dagokionez, benetan liberalizatua dagoen sektore bakarra da. Ohiko energia enpresek pisu handia badute ere, badira zerbitzu hau eskaintzen duten irabazi asmorik gabeko kooperatibak, Goiener eta Som Energia kasu. Hainbat energia komunitate ere sortu dira azken urteetan herrietako instalazio berriztagarrien inguruan. Komunitate energetiko eta merkaturatzaile hauen arteko harremana gakoa izan daiteke, autosufizientzia konektatuaren ideari jarraiki, eskala ertain-handiko proiektu berriztagarriekin ekoizten den energia zuzenean herritarrei helarazteko, horrela, autokontsumoarekin ekoizitakoa osagarrituz, argindarraren prezio justu eta egonkor bat bermatuz. Bestalde, administrazio publikoen energia kontsumoan ere arreta jarri behar da. Hego Euskal Herriko administrazio publiko guztien elektrizitate kontsumoa 1 TWh ingurukoa da (ospitaleak, eskolak, eraikin publikoak, trenak, autobus elektrikoak, ...). Normalean lizitazio handien bidez egiten da energia honen kontratazioa eta energia enpresa handiek lortzen dituzte kontratu hauek. Catalunyako L'Energetica enpresa publikoaren adibideari jarraituz, Euskal Herriko administrazioek komertzializatzaile publiko bat sortu beharko lukete, beren energia berriztagarri propioa sortu eta ekoizpen prezioan zerbitzu publikoak elikatzeke. Esaterako, Nafarroan ATENA agentzia publikoak aukera ematen du hau egiteko.

7. Herri kultura ekosoziala, eraldaketa ekosozialerako giltzarri

Kapitalismoa, sistema ekonomikoa izateaz gain, makinaria kultural erraldoia da eta gure iruditerian naturalizatu ditu hazkundera, kontsumoa eta bizi-proiektu indibidualizatua. Are, programa ekonomiko-kultural horrek han-hemen barreiatu du bestelako alternatibarik posible ez denaren konbentzimendua.

Kapitalismoaren gaurko bertsio finantzario eta teknologikoak atmosfera kultural eta emozionala are gehiago bete digu desorientazioz eta segurtasun ezaz, baita joera autoritarioez ere. Beldurrak okupatu du eszena sozio-emozionala.

Aurre egin behar diogu beldurraren hauspotze interesatu eta deliberatuari, jakin baitakigu *shock* dotrina erabiliz populu beldurtuan errazago ezarri ohi dela agenda erregresiboa. Baina beldurrak oinarri objektiboak ere baditu. Kapital metaketa etengabearen oinarrituriko ekonomiak eta kulturak, aurrekaririk gabeko desafio existentzialetara ekartzeaz gain (ekoizidua), eguneroko bizitza beldurrez blaitu du, oinarri errealekin: prekarietatea, etxegabetzeak, baliabide energetikoen garestitzea, hil amaierara heltzeko zailtasunak, burbuila finantzarioen eztanda arriskua, pandemiak, gerrak eta militarismo hazkorra, ziurtzat genituen eskubideen higatzea (migranteena, emakumeena edota LGTBI+ kolektiboarena), mega-suteak, uholdeak eta auskalo hurrengo non zein gertakari klimatiko hondagarri.

Etorkizuna dagoeneko ez da oparotasunaren jokalekua, ezpada proiektzio hondagarriekin jositako territorio lazgarria. Ziurgabetasuna da gaurko bizipen oinarritzkoa.

7.1 Herri kultura alternatiborako abiapuntuak

Gainezkatzea bada ere gizadiak duen desafiorik handiena, diskurtso eta praxi hegemonikoetatik etengabe planteatzen da hazkundera nola eutsi edo nola berau azkarrarazi, handituz energia eta materialen kontsumoa eta, sarri askotan, handituz klimaren desestabilizazio are hondagarriagoa ekarriko duten isuriak. Paradoxikoa bada ere, marko kultural hegemonikoaren baitan, gainezkatze ekologikoaren areagotzeak dakar segurtasuna.

Ez da txikia, ezta erraza ere, behar dugun mutazio kulturala. Gauzak ikusteko modu oinarritzkoak iraultzea behar dugu, desafio existentzialari arrakastaz erantzungo bazaio. Gehiegiaren zibilizazioak ekarri gaitu gainezkatzera eta aurrekaririk gabeko desafio existentzialetara, eta gehiegiaren logika hori auzitan jartzea da zeregin politiko-kultural funtsezkoa. Argi berri batekin berrirakurri behar ditugu segurtasuna, askatasuna eta justizia bezalako kontzeptuak, bestelako hegemonia politiko-kulturalak eraikiz oso bestelakoa den ertzetik: bizitza ona (bizitza duina eta segurua) soilik eraiki ahal izango da errealismo biofisikotik (gizarteak muga biofisikoen barruan birtxertatuz) eta indibidualkeria gaindituko duten zaintza- eta lankidetzakomunitarioetatik. Munduan egoteko eta izateko bestelako moduetatik alegia, geure existentziaren birplanteatze indartsua eginez.

Aldaketa kultural sakona gerta dadin praktika sozialak bere osotasunean hartu behar ditugu kontuan. Gure ezkerreko kultura politikoan kontua ez da zer esaten den, zer egiten den baizik. Paradigma neoliberalak proposatzen digun biziera materialistari eta pribatizatuari, kontrajarri behar zaio gure kondizio elkar-menpekoarekin eta eko-menpekoarekin bat egingo duten bizi-praktika alternatiboak. Kontzientziak tarteka eragin ditzake praktika alternatiboak, baina praktika sozial alternatiboak izan ohi dira kontzientzia molde berriak abiarazteko eta azkartzeko funtsezko tresnak. Uler dezagun dialektikan: aldaketa estrukturaletatik etorriko da beharrezkoa dugun aldaketa kultural sakona, eta alderantziz.

Bestetik, aldaketa kultural sakon hori norbanakoan gauzatu behar da, herritarron eguneroko bizimoduan eta hautuetan, baina ez da zeregin indibiduala, eraikuntza kolektibo eta *erlazionala* da. Zeregin ezin politikoagoa, beraz. Kontua ez da trantsizioa zintzilikatzea norbanakoen hautu boluntarioetan, demagun norbanakoa animatuz “kontsumo arduratsura” edota “kontsumo jasangarrira” (horiek beharrezkoak izanik ere). Gure egitasmo politikoak eskuratu nahi du *egiturazko aldaketak* gauzatu eta metabolismo soziala eraldatzeko ahal kolektiboa, ez apelazio indibidualak egiteko jardun politiko boluntarista (logika neoliberalari hain funtzionala zaiona).

Trantsizio ekosozialaren aldeko “ofentsiba kulturala” egitasmo politiko emantzipatzailearen erdigunean dago, ez periferian. Nagusiki, aldaketa arin eta egiturazkoak ezingo baitira eman —ezta mantendu ere— sostengatzen ez badira herrian eta herritarron kontzientzia eraberrituan, paradigma neoliberaletik aldentutako zentzu komunean eta kontzientzia kolektibo indartsuan.

7.2 Mutazio kulturalaren zenbait eduki

Gure egitasmo politikoak helburu du gehiengo sozialen bizitza hobetzea beste bizidunen bizi baldintzak ahaztu gabe (ekosistemak zainduz, etab), IPBESek dioen bezala, antropozentrismo kulturalaren mugak ulertuz, eta beste ikuskera alternatiboak (adib. ekozentrismo edo polizentrismoa) aintzat hartuz. Aro berrian baina, eta gurea bezalako aztarna ekologikoarekin, dagoeneko ez da posible hazkunde amaigabearen arrazoinamendua eta, modu berean, dagoeneko ez da posible bizi-ibilbideak irudikatzea materialki gehiagora eginez. Hortaz, topo egiten dugu gure egitasmo politikoaren bihotzean kokatu beharreko funtsezko galderarekin: nola sortu ongizatea eta bizitza ona, hazkunde-osteko kontestu historikoan. “Gehiago” helburu duen egitasmoa soilik antolatu ahal izango baita munduko gutxiengo gotortu baten-tzat, horretarako eraginez azpiegitura ekologikoaren suntsiketa eta planetako gehiengo zabalaren bazterketa (baita sarraskia ere, nekropolitika dosi handiekin). Elkartasunean, justizian eta internazionalismoan oinarrituriko egitasmoak eskatzen du uztartzea nahikotasunaren printzipioa banaketaren printzipioarekin (banaketa, ikuspegi nazional zein globaletik, baita genero eta belaunaldi arteko ikuspegitik ere).

Auto-mugatzea (indibidual zein kolektiboa) eta nahikotasuna dira, segurutik, iraunkortasun ekologikoaren saihestik garrantzitsuenetakoak, egokiak baitira bai krisi ekosozialaren kausei nola ondorioei aurre egiteko. Bistakoa da ez direla gizarteko sektore probretu eta prekarizatuak materialki jaitsi behar. Finitoak diren baliabideen kontsumo globala da jaitsi beharrezkoa, eta hori egin nahi dugu ondo banatuz baliabideak eta ondasunak. Justizian oinarrituriko trantsizio ekosoziala, gehiengo zabalentzat egitasmo emantzipatzailea da (posible den bide emantzipatzaile bakarra, seguruenera).

Justizia ez soilik gizakion artean, baita gizakion eta gainontzeko bizidunen artean ere. Horregatik, eraiki beharreko marko kultural ekosozial berriak nahitaez gaingidu edota leundu behar du antropozentrismoa;

alegia, gizakiok gauza guztien erdigunea okupatu eta, geure interes eta premien mesederako, gainerako guztia mende hartzea zilegi bihurtzen duen filosofia. Paradigma kultural berri batek bide eman behar lioke mundu-ikuskera biozentrikoagoari (biziaren eta, beraz, organismo bizidun guztien balioa aldarrikatzen duen paradigma) eta ekozentrikoagoari (espezieen, ekosistemen eta Lur planetaren babesa aldarrikatzen duen paradigma). Nekez jardungo dugu *Bizigintzan* sakon aldatu gabe bizidunetik harremana, baita bizidunok sostengu dituzten ekosistemekiko harremana ere (ekidinez eskuin-muturrean ohikoak eta baztertzailerak izan diren joera erromantiko etno-naturalistak).

7.3 Komunitatea, ardatz

Sekulakoa da larrialdi ekologikoak dakarkigun desafioa: mundu-ikuskera indibidualista aldatu eta bizitza erdigunean jarriko duen paradigma komunitarioa eraiki. Komunitarioa den kultura politikoa da gurea, eta horixe da etorkizuna eraikitzeko soro ezinbestekoa baita ikuspegi ekosozialetik ere. Hona hemen zenbait arrazoi:

1. Modu praktikoa esatearren: hegazkin pribatua izateko eskubidearen gainetik dago gehiengo zabalentzako garraio publiko jasagarria. Hau da, aberastasun materialak muga biofisikoekin talka biolentzia bizi duen honetan, eta kontsumitzeko zenbait askatasunek existentzia kolektiboa arriskuan jartzen duten garaian, askatasun indibidualon gainetik dago guztion ongizatea.
2. Aurre egiteaz gain bizitzaren pribatizazioari eta horrek dituen efektu psikosozial kaltegarriei, zuntz komunitarioa zaintzeak erraztu egiten du bizi-aspirazioen desmaterializatzea. Elkar menpekotasunean oinarrituriko moldeak erraztu egiten dute giza premiak bide kolektiboetatik asetzea, eta murriztu egin ohi dituzte inpaktu ekologikoak. Etorkizuneko Euskal Herrian soiltasunean oinarrituriko bizierak uztartu nahi ditugu oparotasun publiko-komunitarioekin. Luxu pribatuen lekuan, onura komunitarioa. Horretarako, herritarren bizitzan oinarritzekoak diren sektoreak merkatuaren logikatik askatu eta kontrol kolektiboaren menpe nahi ditugu (molde publiko eta komunitarioen menpe).
3. Bizitzaren zati gero eta handiagoa sare digitalean dugu, baina aldaketa politiko errotikoak ez dira pantaila bidez etorriko. Digitalizazioaren tsunamiak, inpaktu ekologiko erraldoia izateaz gain, jauzi ikaragarria ekarri du kultura modelatzeko zereginean, eta indartu egin du paradigma hegemonikoa. Ikuspegi ekosozialetik, batetik, oposizio kritikoa behar genuke, auzitan jarritzak beste “digitalizazio neutralaren” ideia xaloa. Bestetik, sozializazio-bide presentzialak eta elkargune komunitarioak funtsezkoak dira subjektu politiko eraldatzailerak eratzeko, baita auto-antolatze gaitasun efektiboa lantzeko ere.

7.4 Disputa kulturalerako prestatu

Trantsizio ekosoziala irudika daiteke konplexutasun handiko prozesu historiko gisa, atzera-aurrera askorekin, borroka ugariarekin, baita une bero eta epelagoekin ere.

Eraldaketa kulturala gauza dadin, une beroak azkartzaileak izan daitezke. Hau da, narriadura ekologikoak eragingo dituen *shock* egoera ugari eta anitzak baliatu beharko dira jauzi kualitatiboak emateko aldaketa kulturalen: kausa ekosozialak seinatu, larrialdi egoeraren kontzientzia hedatu, eta segurtasuna eraiki herritarren kezka orientatuz bide kolektibo, zentzuzko eta emaztzipatzailetik (krisien eraginez,

posible izan dira behiala erradikal gisa ikusten zirenak, demagun merkatu energetikoan eskuhartzea). Jakinik autoritarismo berriak ere ari direla *shock* egoerak probestu nahian kontrako norabidean.

Alegia, disputa kulturala biziko dugu gertakari gero eta larriagoen inguruan, eta gatazka bakoitzak mugiaraziko du marko kulturala norabide erregresiboan edota emantzipatzailean. Prest egon behar dugu gure diskurtso eta praxi politikoa aktibatzeke behar den une eta indarrarekin, baita behar den sedukzio eta erakarpen gaitasunarekin ere.

Prest egon behar dugu disputa kulturala egiteko baita une epeletan ere (narriadura ekologiko geldoa-goko eta ikusezinagoko sasoian). Jakinik autoritarismo berriak ondo mugitzen direla baita testuinguru horietan ere, halakoetan ardatz kulturala erraz mugiaraziz salbazio-bide neoliberal, indibidualista eta baztertzailaetara.

7.5 Komunikazio eta pedagogia politikoan asmatu

Tentsio-gune garrantzitsua da honakoa: batetik, ezin diogu muzin egin gainezkatze ekologikoaren larritasunari eta beronen komunikazio errealistari; bestetik, premiazkoa da esperantza eraikitzea, kontakizun politiko eraikitzaile eta desiragarrien bidez. Herritarrok zenbat eta gehiago jabetu bizi ditugun arriskuez eta horien egiturazko zergatiez, orduan eta indartsuagoa aldaketaren aldeko bulkada. Desesperantza sortzen duten diagnostiko ezin larriagoekin, ordea, ezingo dugu aterabiderik aurkitu. Zaila da errealismoa esperantzarekin uztartu nahi duen oreka hori, baina gakoa da oreka horretan asmatzea.

Geure buruak prestatu behar ditugu aipatu dugun orekarako, uztartuz larritasunaz helduki jabetuko den kultura politikoa, desafioaren tamainak eskatzen duen konfiantza, motibazioa eta ilusio kolektiboarekin. Eta herri kultura ekosozialaren muin bihurtuz honako konbentzimendua: gehiengo sozialentzat, trantsizio ekosozial justua hoberako aldaketa (bakarra) da.

7.6 Hezkuntza ekosozial integralaren garrantzia

Azkenik, kultura ekosoziala eratzeari begira, garrantzitsua da edukiz betetzea eta zaintzea zenbait eragile, espazio eta gizarte esparru, eginkizun berezia betetzen baitute herritarren sozializazioan eta subjektibotasun eratzaile gisa: hedabideak, komunitate zientifikoa, unibertsitateak, eskolak, zentro kulturalak, kulturako eragileak edota adierazpen artistiko ugariak.

Horien guztien artean, aipamen berezia merezi du hezkuntza-sistemak. Kurrikulumaren ekologizazio sakona behar dugu, kontsideratuz konpetentzia ekosozialak zeharkako ardatz gisa, integratuz eduki berriak (muga biofisikoak, biziera kontsumistari kritika, pentsamendu sistemikoa, eta abar), sustatuz emozioak barnebilduko dituen hezkuntza paradigma, edota birtxertatuz haurrak praktika naturaletan (esperimentzia zuzenak eta esanguratsuak natur esparruetan).

8. Azken hitza

Ponentzia hau idazten ari ginen bitartean, Trump AEBetako lehendakaritzara itzuli da, ultraeskuina mundu osoan zehar indarra hartuz doa eta, berarekin batera, kapitalismo fosila indarberrituta ageri da.

Mundu mailan ematen ari den mugimendu erreakzionarioa osatzen duten alderdi eta liderrek badituzte bi ezaugarri nagusi mugimenduari berari forma ematen diotenak: ezberdinarekiko gorrotoa (migrazioarekiko jarreraren gorpuzten dena) eta negazionismo ekologikoa eta, batez ere, klimatikoa. Ez dute aberas-tasuna pilatzen jarraitzeko mugarik nahi (ez dituzte planetaren muga biofisikoak aitortzen), eta aberas-tasun guztia beraientzat nahi dute, “America First” leloak ondo islatzen duen bezala.

Krisi ekosozialari aurre egiteko urte erabakigarrietan sartu garelarik, eta ultraeskuinaren eskutik nega-zionismoaren mila aurpegiak bueltan datozen honetan, kapitalismo fosilaren eta kapitalismo berdearen arteko dikotomia indarra hartuz joango da. Orain gutxi arte irudi zuen munduko eliteen artean bazegoela nolabaiteko adostasun bat kapitalismoak izan beharreko bilakaeraren inguruan, nazioarteko akordio ezberdinetan islatuz joan dena, eta Europaren kasuan, “Europako Itun Berdea”n gorpuztu dena. Baina, nazioarteko testuingurua izaten ari den bilakaera ikusita, ezin daiteke kapitalismoaren mutazio berdea egintzat edo atzera bueltarik gabeko prozesutzat hartu. Testuinguru konplexu horretan, bere burua ezker eraldatzailean kokatzen duen edozein mugimendu sozial edo alderdi politikok, momentu historikoa ego-ki irakurri eta interpretatzen asmatu behar du, ez dezan, antikapitalismoaren edo antidesarrollismoaren izenean, kapitalismo fosila betikotzen duten posizio pseudo-negazionista edo erretardistak (deskarboni-zazioaren premia erlatibizatzen dutenak) elikatzen bukatu.

Ponentzia honetan argi adierazi dugun bezala, eraldaketa ekosozialak hazkunde-osteko ortzi muga post-kapitalistara eraman behar gaitu, logika neoliberala gainditzearekin hasi eta kapitalismoaren oinarri nuklearrak zalantzan jartzeraino, baina, horretarako, krisi ekosozialari aurre egiteko ibilbide orri egingarri bat behar dugu, ingurumen eta klima justiziaren nozioak oinarri izan behar dituenak. Ipar Globaleko herrialdeak gara, krisi klimatiko nahiz ekologikoan dugun erantzukizun historikoa aintzat hartuta, Berotegi Efektuko Gasen Emisioak lehendabizi eta ahalik eta azkarren murriztu behar ditugunak, zeren, ez baitago ezelako etorkizunik, egungo proiektzioek aurreikusten duten bezala, lurraren beroketa 3 °C-en gain-di badoa, bereziki eta lehendabizi, Hego Globaleko herrialdeentzat eta etorkizuneko belaunaldientzat. Zentzu horretan, haustura edo iraultzarako baldintzak ematen ez diren bitartean, estrategia ezin daiteke Europatik datorren agenda berdearen aurka egitea izan, baizik eta marko hori baliatzea, Euskal Herriak dituen indargune eta potentzial eraldatzaileetan oinarrituta, agenda hori ponentzia honetan irudikatu dugun eraldaketa ekosozialaren norabidean jartzeko. Zeren, ez gaitzen engaina, agenda berdeak atzera egin edo porrot egiten badu, gertatuko dena ez da iraultza ekosozialista izango, eskuin muturraren eskutik datorren kapitalismo fosilaren berrindartzea baizik eta, horrek, hondamendi ekologikoaz gain, aurrekaririk gabeko sufrimendu soziala eragingo du, Hego nahiz Ipar Globalean.

ehbildu